

MANEL QUERALT

Vacu
izaki sufritzailea

olerki-argitalpen elebiduna

katalana – euskara

euskaratzailea

Jon Elordi



Azaleko irudia: Gaudiren Sagrada Familiako eskailera kiribila.

Lehen argitalpen katalanaren hitzaurrea

Saiakera-lan baten hitzaurrea egitea zaila bada, are zailagoa da hitzaurrea poesia-liburu baten atarikoaren denean. Ez da erraza idazlearen lekuan ipintzea eta poesia-lana osatzen duten sentimenduen eta gogoeten oldea zein den asmatzea. Testua barnetasun baten kanporatzea da, zeinak irakurlearen konplizitatea bilatzen baitu. Olerkariak, bere barneko ahotsa erritmikoki azaleratuz, bere nortasun sakonena azaltzen du kanpora, bere niaren funtsezko muina erakusten digu. Alde horretatik, poesia egitea biluzte-ekintza bat da, *azaltze-ekintza* bat, olerkaria biluzik agertzen baita irakurle ezezagunaren aurrean.

Irakurlea, testua irakurtzean, oso identifikaturik senti daiteke poetaren barruan taupaka ari den horrekin. Hori gertatzen denean, olerkia geure ondare pertsonal bihurtzen da; objektu intelektual edo literario izateari uzten dio eta norberaren subjektibotasunaren leiho bilakatzen da. Sarritan, olerkariak guk geuk baino hobeto dakite azaltzen geure izatearen barne muinean sentitzen dugun hori. Gure hunkipenei, gure sentimenduei, gure emozioei hitzak ipintzen dizkiete; geure burua perfektukiago esaten laguntzen digute, nahiz eta badakigun inoiz ez dugula geure burua erabat esaten, hitzak ezin duelako bere baitan hartu giza esperientzia osoa. Olerkariak hitzaren dohaina dute, irudiaren plastikotasunarena eta idazlanaren armoniak beharrezko duen erritmoarena.

Ondorioz, poesiak bestearen itsaso subjektibora iristeko bidea eskaintzen digu, nahiz eta ibilbide horretan beti oztoporen bat agertu. Olerkari baten ideiak azaltzeko asmoa dugunean, funtsezkoa ez ikusteko edota idazlanaren muina oker ulertzeko aukera oso presente dago beti. Hala ere, ahalegina egiteak merezi du, zeren testu bakoitzak aukera ezezagunak ezkututzen baititu eta irakurle bakoitzak egiten dituen aurkikuntza pertsonalak bereganatu egiten baititu. Poesia irakurtzea itzulerarik gabeko bidaiaria bat abiatzea bezalakoxea da. Ez dakigu nora eramango gaituen, ez eta bidaiaria amaitzen denean nolakoak izango garen ere. Sarri-sarritan, ez da izaten bidaiaria atsegina; izan ere, existentziaren eta geure

subjektibotasunaren zenbait arlo aurkitzen ditugu nahiago izango genituenak ez ikusi, baina olerkariak ez digu bizitzaren alde ederra bakarrik erakusten, alde iluna eta zikoitza ere erakusten digu. Hori dela eta, poesia irakurtzeak nolabaiteko arima-sendotasuna eskatzen digu, zeren irakurlea ez baitago beti prest bere buruarekin eta bere munduaren mugekin aurrez aurre ipintzeko.

Irakurleak esku artean duen liburu honen egileak poesia-lan honen hitzaurrea egitera gonbidatu nau, eta esker onez baina, aldi berean, horrelako lan bati dagokion eginkizunaren beldurrez sentitzen naiz. Ez da erraza Manel Queralten poesia izenondo batez kalifikatzea. Hasteko, esan genezake idazle heldu baten aurrean gaudela (zeinak, oso ondo eginiko beste testu batzuetan, dagoeneko adierazia baitu bere munduaren, gizakiaren eta giza izatearen ikuskera) bai eta irakurleari eskaintzen diona gogoeta-poesia dela ere, irakurlea pentsatzera bultzatzea xede nagusitzat duen poesia, hura leku ezezagunetara eramanez, gogoeta egitera laguntzen diona. Baina ez da poesia intelektual hutsa, zeren kontzeptu filosofikotan aberatsa bada ere —aipu metafisiko inplizituz beteta dago—, oso poesia grinatsua baita, eta horrek irakurlearen bihotza pilpirarazi egiten du eta harengan aurreikusten zail diren gogo-aldarreak sortzen ditu. Bihotz-erritmoak nola aldatzen zaizkion sentitzeko prest ez dagoenak hobe du olerkari hau ez irakurtzea, zeren ideien eta sentimenduen uholdea baita haren poesia eta ez baitu axolagabe uzten hurbiltzen zaion irakurlea.

Badira irakurri ondoren ahazten diren olerkariak. Baina badira, baita, irakurri ondoren ahaztu ezin direnak ere, eta ez bakarrik arimako hariak ukitu dizkigutelako, baizik eta barrutik hustu eta estalperik gabe uzten gaituztelako. Manel Queralt etorki horrexetako olerkaria da. Horrexegatik ausartzen naiz irakurleari ondoko oharpen hau egitera: orriotan aurkituko duena poesia filosofikoa da; bilaketa pertsonal baten olerki luzea da, giza izatearen miaketa zintzo eta, aldi berean, gordina.

Ez da nire asmoa, ezta hurrik eman ere, olerkariak, oparitzen digun poeman, hain ederki adierazten duena beste era batera esatea (gainera, ez nintzateke gai izango), baizik eta erakusten digun

lurraldean arakatzea, liburuan argitaratu aurretik haren poesia irakurtzeko zortea izan duen irakurlearen ikuspuntutik. Azken batean, hitzaurre baten helburua ez da aurkezten duen lana iruzkintzea, baizik eta irakurtzera bultzatzea, irakurleari esku artean duen lanaren balioa erakustea, irakurtzera akuilatuz, edo hobeto esanda, irakurtzera baino gehiago, hura jasotzera eta babestera. Hitzaurre honek helburu hori lortzen badu pozik geldituko naiz, idazlanak merezi duela uste baitut.

Gure kultur ingurumenean poesia-modu hori ez da batere ugaria. Sarri-sarritan, poesia hitzaldi bat edertzeko edota jendaurreko ekitaldi bat atsegin bihurtzeko erabiltzen da, baina Queralten poesiak ez du helburu horietariko bat ere. Izaera existentzialista sakona duen poesia da, bizitze-larritasunetik sortzen dena (hitzaren zentzurik heideggeriarrenean) eta giza bizitzaren alderdirik ilun eta zailena erakusten duena. Olerkariak erritmikoki adierazten du ezerezaren aurrean sentitzen den larritasunaren bizipena, denbora iragankor eta *heriotzarentzako-izaki* baino ez garelako egiaztatzearen aurrean sentitzen den larritasunaren bizipena. Queraltrek hustasunaren esperientziari aurpegi ematen dio, ez du esperientzia horren laztasuna ezkututzen eta berak, bakar-bakarrik, egin duen ibilbidea egitera gonbidatzen du irakurlea. Badirudi olerkariak kide bat bilatzen duela, beraren esperientzia berbera partekatzen duen ahots lagun bat.

Hutsunearen amildegiaren aurrean ohikoa da arreta galtzen aritzea, gauzetara ihes egitea, denbora-pasa sozialetan galtzea. Gure gizarteak oso tresna boteretsuak ditu (bai indarrez bai eta hedaduraz ere) gizabanakoa etengabe adigabetuta edukitzeko, etengabe txikikerietan eta berri gauzaeztanetan buru belarri sartuta edukitzeko. Askotan, olerkigintzari dagokio betebeharrak hori, baina ez da hori Queralten poesiaren xedea.

Olerkariak hutsaltasunaren izuaren aurrean ipintzen gaitu eta amildegiaren ertzean bakarrik lagatzen, gogoeta egin dezagun non gauden, nor garen eta zer den gure bizitzeko zentzua ematea. Zarataz eta mezu lo-eragilez beteriko kultura batean, Queralten poesia, nolabait, kontrakulturala da; izan ere, ez da gauzatzen azalkearen lurraldean, seriotasunaren eta benazkotasun existentzialaren lurralde

zabalean baizik. Baliteke irakurle postmodernoak Vacuren (idazlanaren protagonistaren) drama ez ulertzea. Hala balitz, ez litzateke olerkariaren erruz izango, olerkariaren eta munduaren bizipenen artean dagoen aldearen erruz baizik. Baina irakurle batzuek, ziur nago, saminez nabarituko zuten Vacuk sufritzen duen hutsaltasuna eta, alde horretatik, Manel Queraltek eraikitzen duen munduarekin, neurri batean, bat letozke.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, zilegi da esatea Queralten poesiak urruti-urrutira joateko prest dagoen irakurlea eskatzen duela, absurdoaren metafisikan murgildu eta giza izatearen izaera kontingente eta gehiegizkoa bere eskuz ukitzeko prest dagoen irakurlea. Izan bagara, baina gerta zitekeen ez izatea ere. Gaizkiak neurrigabeki gainezka egiten digun munduan bizi gara. Izan ere, izatearen pobreziaren bizipena da Queralten poesia guztiaren ardatz nagusia. Gauza guztien iraungikortasuna, denboraren iragankortasun errukigabea, munduaren eta gizakien kontingentzia, niaren eta bere loturen hauskortasuna, aukera poetiko horren oinarrizko gaiak dira. Queralten munduan dena da galkor, eta gizakia ez da kontingentzia horretara erabat egokituta bizi; aitzitik, guztiz ezeroso dago eta, etsita, erantzun bat bilatzen du, seinale bat, guztiari zentzua emango liokeen zerbait. Milan Kunderaren hitzekin esanda, izatearen arintasun jasanezinaren esperientziak sufrimendua sortzen du, baina ez gorputzekoa, metafisikoa baizik.

Queralten olerkigintzan sufrimendua da giza izatearen gakoa. Poetak bere buruari galdetzen dio ea zerk justifikatzen duen bizitzea, ea zergatik nahi ote duen protagonistak (Vacuk) izaten jarraitu, zergatik izateari eusten borrokatu. Vacu norberaren hutsaltasunari arduraz aurre egiten dion gizakiaren arketipoa da eta, aitzakiatan ibili gabe, etsi-etsian, bere izatea justifika eta nihilismoaren tentalditik babes dezakeen arrazoa bilatzen du. Queraltek poesiaren muin-muinean ipintzen du galdera filosofiko garrantzitsuena: Zerk egiten du bizitzeak merezi izatea?

Vacu izaki hauskorra da, zaugarria, oinazeak harrapatua, izatearen berealdiko labirintoan galdua, iluna eta hurkoengandik aldendua. Olerkariak behartu egiten gaitu hutsunearen leihoa zabaltzera, ohi

duguna baino harantzago begiratzera eta geure izatearen erraietaraino murgiltzera. Vacuren Izatea ez da betikotasunetik maite duen Jainko baten betiereko Izatean funtsatzen, Hutsunerik sakonenean baizik. Queralten poesian ez da nabari Golgotan zentzuz bete zen Presentzia hori. Aitzitik, badirudi askabide bakarra hutsune hori onartzea dela esaten digula.

Poema luze honetan, egileak lirikoki eta patetikoki adierazten du hustasunaren esperientzia, autore latindarrek *horror vacui* zeritzotena. Poemako pertsonaia nagusia, Vacu (seguruenik olerkariaren *alter egoa*), absurdoaren lurraldean zehar dabil eta esperientzia horri aurre egiteak sortzen dizkion pairamenak erakusten dizkigu. Ezerezean desegiteko aukera, besteekin komunikatzeko ezintasuna, bakardadearen bizipena, munduko gaizki neurrigabekoaren aurrean ezin ezer egin ahal izatea, etengabe agertzen dira Queralten olerkian. Argi dago irakurlea poetaren mundu-ikuskerarekin bat etor daitekeela, ala ez, baina, nolana ere den, onartu behar izango du Queraltrek eskaintzen digun ikuskerak gure uste sendoak hunkitu egiten dituela eta gogoeta egitera bultzatzen gaituela. Horrexegatik baino ez bada ere, liburu honetako olerkiak asko balio du.

Poetak dioenez, funtsezko galderei buruz, benetan bihotza zauritzen eta hunkitzen diguten haiei buruz, “ez dakigu gauza handirik, ezin da ezer esan”. Manel Queralten olerkiak, edertasun plastikoaz gain, izugarritzko indar metafisikoa du; izan ere, arinkeria baztertuz, irakurlea existentziaren galdera nagusiekin aurrez aurre ipintzen du. Horrela, ez pentsatzearen loaldi gozotik esnatu egiten gaitu.

Irakurle agurgarri hori, espero dut Queraltrek hain txeratsuki eskaintzen digun olerki hau gozatzen jakingo duzula. Goitik behera onestasunez, zintzotasunez eta egiazaletasunez beteta dago. Arreta eta, bereziki, entzute-jarrera eskatzen ditu. Haren ahotsa barneratu ahal izan dezazun, barruan durundaka ari zaizkizun ahotsak isiltzeko ahalegina egin behar izango duzu, hartzaille-jarrera hartu eta zeure burua testuak lilura dezan utzi. Bidaia ona izan dezazula, irakurle!

Francesc Torralba Roselló
Filosofo eta teologo laikoa

“Gizakia ikaslea da, oinazea, haren irakaslea”¹

Alfred de Musset

“Bistakoa da mundu errealetik nahi adina aldenduriko alegiazko mundu batek ere, ezinbestean zerbait —forma bat— komuna izan behar duela.”²

Ludwig Wittgenstein

“Izatez, izaki bizidun guztiek, animaliek eta gizakiek, bizi egin nahi dute eta borondate hori ohiz kanpoko baldintzetan baino ez da desagertzen, esate baterako oinaze jasanezina pairatzen denean bezalako baldintzetan.”³

Erich Fromm

¹ Alfred de Musset-en *La nuit d'octobre* liburutik (1837).

² Josep-Maria Terricabras-ek itzulitako Ludwig Wittgensteinen *Tractatus logico-philosophicus* liburutik.

³ Erich Fromm-en *To Have or to Be?* (gazt. *Del tener al ser*; fr. *Avoir ou être?*) liburutik.

.....

Una escala de cargol amb graons
de pedra encadenats entre parets
i un sostre no pas alt d'un passadís
esgarrapat, perforat a la roca,
on l'ull no travessa la superfície
potser l'arrodoneix, en dóna forma,
però no descobreix els seus misteris.
Es podria especular si un alè
d'energia bufà sobre un polsim
de matèria primera i si va
donar lloc a una vida i si després
aquest combinat va experimentar
canvis decisius i extraordinaris
per esdevenir llavors una imprecisa
i caragolada evolució
que ens dugués amb un cert convenciment

.....

Eskailera kiribil bat harmailak
pareta artean kateatuta dituena
eta sabai ez garaiegi bat harramazkaturiko
5 pasabide batean, haitzean zulaturikoa,
non begiak ez baitu gainazala zeharkatzen,
beharbada biribildu egiten du, forma ematen,
baina ez ditu bere misterioak argitzen.
Espekula liteke ea energia-hats batek
10 lehengai tantatxo bati putz egin
ote zion eta bizigai bat sortu zuen
eta gero konbinatu horrek eraldatze
funtsezko eta harrigarriak pairatu ote zituen,
ondorioz bilakaera zehaztugabe
15 eta zirpildu bihurtzeko, eta bilakaera horrek,
nolabaiteko sinesgarritasun batekin,
ea honaino ekarri ote gaituen,

fins aquí, l' instant d'aquesta història.
Potser ens extralimitariem si
plantegéssim que, aquells anomenats
a partir d'ara éssers vius, es van
succeir un rere l'altre i ho van fer
seleccionant-se entre ells els més aptes
i deixant de banda els menys adaptats.
Éssers molt antics i indeterminats,
que no podem assegurar que van
existir, perquè mai ningú els ha vist
ni en tenim cap indicatiu fidedigne.
Fins i tot arribariem a concloure
sense por a desviar-nos massa
de la realitat, que aquells éssers,
en contra del que es pugui pensar
sobre la més que improbable existència,
van perforar una escala dins la roca.

istorio honen uneraino.
Beharbada gehiegikeria egingo genuke
20 planteatuko bagenu hemendik aurrera
izaki bizidun izendatuko ditugunak
bata bestearen atzetik sortu zirela,
euren artean egokienak aukeratuz
eta bazterrean utziz ezegokienak.
25 Antzina-antzinako izaki zehaztugabeak:
izan ote ziren ere ezin dugu baieztatu,
sekula inork ikusi ez dituelako,
eta euren aztarna frogagarririk ez dugulako,
gainera, errealitatetik gehiegi
30 aldentzeko beldurrik gabe,
ondoriozta genezake ezen izaki haiek,
beraien izate nekez sinestekoari
buruz pentsa litekeenaren aurka,
eskailera bat zulatu zutela haitzean.

Així mateix podríem imposar-nos
la tasca descomunal d'intentar
desxifrar un motiu per petit que sigui
sobre el *perquè* de l'inici d'una obra
com la que aquí es es fa servir a tall d'exemple.
Però el passat se'ns mostra tèrbol
i ens és impossible determinar
quines van ser les causes i per tant
haurem de tragar a coll el feixuc
desconeixement d'aquells orígens:
tot el que s'atribueix a l'escala
se'ns escapa com també els seus inicis.
No sabríem afirmar si a dins tot
és fosca, potser ens equivocariem
perquè no estem gaire segurs, però
a l'interior hi vivia una llum
somorta que no se sap d'on sorgia:

35 Era berean, hemen adibidetzat darabilguna
bezalako eraikuntza-lan bat hasteko
zergatiaren arrazoiren bat, txikia izanagatik ere,
dezifratzearen zeregin eskerga
inposa geniezaioke geure buruari.
40 Baina iragana uherra ageri zaigu
eta ezinezkoa zaigu zehaztea
zein izan ziren arrazoiak eta ondorioz
bizkarrean eraman behar izango dugu
hastapen haien ezjakintasuna:
45 eskailerari dagokion guztiak
ihes egiten digu baita bere jatorriak ere.
Ezin baieztatu dezakegu barrenean dena
iluna ote den; beharbada oker ibiliko gara
ez baikaude oso ziur, baina
50 nondik zetorren ez dakigun argi
zurbil bat bizi zen barruan:

d'una font incerta i desconeguda,
una lluminositat absorbida
durant segles pels porus de la pedra.

Podem conjeturar que una vegada
allí dins no sabríem que podria
passar si imprudent algú es decidís,
—no endevinaríem per quins set sous—
a enfilat el túnel i pujar l'escala.

Ara bé, doncs, segur que ens sorprendria
si ens afirmessin en contra de tot
pronòstic que resulta inversemblant
però cert que algú habita dins la roca.

Provinent de no se sap quin llunyà
racó, sense intuir d'on, alguna
cosa remunta des del més profund
de la foscor, que ens és desconeguda.

.....

argi-iturri zehaztugabe eta ezezagun bat,
mendez mende harriaren poroek
xurgaturiko klartasun bat.

55 Esan dezakegu behin han barruan sartuta
ez genukeela jakingo zer gerta litekeen
norbaitek ezaxol erabakiko balu
—ez genuke antzemango zer arraiogatik—
tunelean gora egitea eta eskailera igotzea.

60 Hala ere, ziur harrituko ginatekeela,
aurreikuspenen aurka sinesgaitza badirudi ere,
egia dela haitzean norbait
bizi dela baieztatuko baligute.

Auskalo zein zoko urrunetik,
65 nondik jakin ezin dugula, gauzaren
bat gorantz dator ezezaguna zaigun
iluntasunaren bazterrik sakonenetik.

.....

«...Dos-cents cinquanta-tres mil vint-i-tres
dos-cents cinquanta-tres mil vint-i-quatre
dos-cents cinquanta-tres mil vint-i-cinc...

Ep alerta pensa pensa perquè
sempre que arribes a aquest punt et perds
i has de tornar a començar el recompte.»

.....
Que sentim una veu d'algú que parla?
No ens sorprèn, confirma el que ja intuïem.
No creiem, però, que es tracti d'algun
d'aquells éssers esmentats al principi
minaires de mena que per la dura
tasca que feien degueren ser molt
rudes sinó d'una espècie més
evolucionada més sensible
que segurament, i aviat estariem
d'acord, si a aquest habitant novell,

70 «...Berrehun eta berrogeita hamahiru mila eta hogeita hiru
berrehun eta berrogeita hamahiru mila eta hogeita lau
berrehun eta berrogeita hamahiru mila eta hogeita bost...
Ei adi! gogoan hartu puntu honetara iristen
zaren bakoitzean galdu egiten zarela
eta berriro zenbatzen hasi behar izaten duzula.»

75
Mintzo den norbaiten ahotsa entzuten ari al gara?
Ez gara harritzen, susmatzen genuena baieztatzen du.
Baina ez dugu uste hasieran aipaturiko
izaki meatzari haietako bat denik,
80 zeinek egiten zuten lan gogorragatik
oso zakarrak behar baitzuten izan,
baizik eta garatuagoa eta sentiberagoa
den espezie bat, eta ondokoan ziur aski
ados egongo ginатеke, alegia,
85 egoiliar hasiberri horri, izaki horri,

a aquest ésser, l'anomenéssim home.
Podríem, doncs, pensar o imaginar
que un dia malaguanyat o no sempre
hi ha opinions per a tots els gustos
perquè mai no ens posaríem d'acord
sobre si s'ha pogut escollir o no
a voluntat venir a un món estrany,
un home –dèiem– va anar a raure no
endevinem com, enmig de les tenebres.
Per primer cop hauria obert els ulls
de bat a bat per xuclar amb avidesa
imatges endins el petit cervell
i si hi haguéssim estat testimonis
presencials, fortuïts, li podríem
haver entrevist un innocent somriure.
Però i pel que a nosaltres ens afecta
mai no hem escoltat plors de criatura

gizaki deituko bagenio.
Beraz pentsa edo irudi genezake
egun dohakabe batean, edo ez, beti
baitaude gustu guztietako iritziak,
90 zeren sekula ere ez baikinateke ados jarriko
mundu arrotz batera etortzea borondatez
aukeratu ahal izan ote duen ala ez erabakitzean,
gizaki bat genionez, auskalo nola
ilunpeen erdira erori zela.
95 Zabal-zabalik irekiko zituen begiak
lehenbizikoz bere burmuin txikitxora
irudiak egarriz xurgatzeko,
eta han, ezustean, lekuko izan
bagina, irribarre tolesgabe bat
100 antzeman ahal izango geniokeen.
Baina, eta guri dagokigunez,
ez dugu sekula haur-negarrik entzun

ni un d'aquells sons guturals de nadó.
Per tant, no ens podríem referir a cap
naixement en concret. El més probable
és que es tracti d'algun home, però
no ho tornarem a dir, només sabrem
que és dèbil que si s'aboca a l'abisme
del viure, finalment sucumbirà.
Encara ara no intuïm el seu nom.

.....

Aquesta escala existeix perquè Vacu
l'habita i mentre hi visqui existirà.
Ara bé, si surt, només en el cas
que aconseguís fer-ho, cosa que és
impossible de desmentir, podria
esvanir-se i córrer el perill extrem
de potser mai més tornar-la a veure.
Així que mentre visqui a dins i vagi

ez eta haurtxoen eztarri-hotsik ere,
beraz ezin izango genuke hitz egin
105 ezain jaiotzaz; litekeena da gizaki heldu
bat izatea, baina ez dugu errepikatuko,
jakingo dugun gauza bakarra da
oso ahula dela eta bizitzearen amildegira
hurbiltzen bada, azkenean erori egingo dela.
110 Oraindik ez dugu haren izena susmatu ere egiten.

.....

Eskailera Vacu bertan bizi delako existitzen
da eta han bizi den artean existitu egingo da.
Hala ere, irteten bada, hots, irtetea lortuko
115 balu baino ez, eta hori ez dugu ez baieztatu
ez ezeztatu nahi, eskailera desagertzeko
eta beharbada sekula gehiago ez
ikusteko arrisku latza legoke.
Beraz, barruan bizi den artean, eta harmailak

comptant els graons, sempre li serà
possible tornar –amunt o avall– al punt
que decideixi, però, si es despista,
llavors podria perdre's dins la nit.
El comportament d'aquest Vacu és
com el de qualsevol aprenent, cal
que repeteixi fins a la sacietat
totes les accions orientades
a moure's per l'escala i a conèixer
–abans de pensar en altres coses–
el seu entorn, i, resumint, després
d'una fonda i lenta digestió,
a consolidar-les i fer-les seves.
I no massa a la lleugera potser
i per tant seriosament pensés
que podria recórrer aquell abrupte
però regular terreny, no només

120 zenbatzen jarraitzen duen bitartean, beti
ahal izango du itzuli, gorantz edo beherantz,
erabakitzen duen gunera, baina okertzen bada,
orduan, gauaren baitan gal liteke.
Vacu honen jokabidea edozein
125 ikaslerena bezalakoa da: behin eta berriro
errepikatu behar ditu eskaileran barrena
ibiltzera bideraturiko ekintza guztiak,
bai eta bere ingurua ezagutzera —beste ezertan
pentsatzen hasi aurretik— bideraturikoak ere,
130 eta, laburbilduz, hausnarketa sakon
eta bare baten ondoren, ekintzok
finkatu eta bere egin behar ditu.
Eta arinkeriarik gabe, serioski beraz,
beharbada pentsatuko zuen ez bakarrik
135 eremu malkartsu baina erregular hura
modu berezian zeharka zezakeela,

de forma especial, sinó també
avançar amunt o avall el més possible
i, a més, comptar a mesura que ho fes,
sumant o restant un peu rere l'altre
retenint a la memòria la xifra
i per últim, i alhora, mantenir
els ulls i les orelles sempre alerta
a l'aguait de qualsevol petita
o amagada o insignificant pista,
no deixar res cap racó ni perfil
per investigar malgrat el continu
xantatge dels dubtes que té la ment.
Caldria provar com de sòlida era
i de ben feta estava aquesta escala.
Amb les mans temps i molta paciència
i com si d'un ritual es tractés
podria resseguir les pedres cada

baizik eta gorantz nahiz beherantz
ahalik eta gehien aurrera zezakeela ere bai,
eta gainera aurrera zihoan neurrian
140 kontaketa zehatza eraman zezakeela,
urratsak banan-banan gehituz edo kenduz,
kopuru zehatza gogoan atxikiz,
eta azkenik, eta aldi berean,
begiak eta belarriak beti erne izan zitzakeela,
145 edozein aztarna txiki zein ezkutu zein xeheri adi,
ezertxo ere, ez bazterrik ez ertzik,
aztertzeke utzi gabe, gogoaren zalantzen
xantaia etengabeari aurre eginez.
Probatu egin beharko luke zeinen sendoa
150 eta ondo eraikia zen eskailera hori.
Eskuez, denboraz eta eroapen handiz,
eta erritu bat balitz bezala,
harrien ildoak jarrai zezakeen,

plec cada reclau i acaronar
la superfície llisa o rugosa
tot deixant que aquestes sensacions
li arribessin directament al cervell.

.....

«...Quatre-cents trenta-dos mil vint-i-sis
quatre-cents trenta-dos mil vint-i-set
quatre-cents trenta-dos mil vint-i-vuit...»

.....

Mantenia els hàbits perquè intuïa
aquella ferma creença en què d'alguna
manera així s'oposava a la marxa,
a la incerta i cruel fuga del temps.
En un moment de recés assegut
sobre un graó i apuntalant l'esquena
a la roca la seva ment remembra
trossets de passat sobre el sender

tolestura bakoitza koska bakoitza,
155 eta gainazal leuna edo latza laztandu,
sentipen horiei guztiei aurrera egiten utziz
zuzenean bururaino irits zekizkion arte.

.....

«...Laurehun eta hogeita hamabi mila eta hogeita sei
160 laurehun eta hogeita hamabi mila eta hogeita zazpi
laurehun eta hogeita hamabi mila eta hogeita zortzi...»

.....

Ohiturei eutsi egiten zien, modu horretara
denboraren joanari, ihes lauso eta gupidagabeari,
165 nola edo hala aurre egiten ziola
uste osoz sentitzen zuelako.
Atsedaldi batean, harmaila batean
eserita eta bizkarra haitzari bermatuta,
ordura arte buruturiko ibilaldiari dagozkion
170 iraganaldi-puska batzuk gogoratzen

recorregut i a terra reflexiona
sobre els mètodes empleats.
Allà on el vam veure per primer cop
en un lloc indeterminat del temps
pensem que ja tenia un cert saber
que mai no vam poder identificar
i si des de llavors fins ara li suméssim
tots els coneixements que la seva raó
hagi pogut atrapar —que podrien
ser molt escassos i que creu li van
ser útils summament— podem percebre
que en la majoria d’ocasions
s’havia perdut per simple desídia,
un comportament que considerem
no demostra indicis d’intel·ligència
sinó d’una estupidesa increïble.

.....

ditu haren gogoak eta erabili dituen
bitartekoez gogoeta egiten du, lurrean.
Denboraren kokapen zehaztugabe batean,
lehenengo bider ikusi genuen lekuan,
175 nolabaiteko jakintza-maila bazuela uste dugu,
norainokoa sekula zehaztu ezin izan genuen arren;
eta ordutik hona arte bere arrazoimenak
barneratu ahal izan dituen ikaskuntza guztiak
kontuan hartzen baditugu —oso urri
180 izan daitezkeenak eta berari erabat
baliagarriak iruditu zaizkionak—,
uste izan genezake ezen gehienetan
utzikeria hutsagatik galdu izan zela,
eta gure aburuz jokaera horrek
185 ez du adimenaren aztarnarik erakusten
baizik eta ergeltasun sinestezinarenak.

.....

Comença com una percepció
lleu a l'inici i tot seguit creixent
que conté alguna cosa certament
de pruija i que no podem recordar
quan li va començar o si hi va haver
algun temps en el passat que no hi fos.
Suposem que senzillament no marxa
que hi ha un dolor que segueix Vacu s'instal·la
en els seus ossos, no desapareix.
Imaginem que és crònic i resulta
que és especialment insidiós
perquè treballa sempre gairebé
completament i constat en secret
—infern que abrasa el seu interior—
i no ho sabem però malaguanyat

⁴ Dickinsonen neurtitz batzuek iradokita.

Hasieran ahula baina jarraian handituz doan
hautemate baten antzera hasten da
190 eta hautemate horrek zinez erresumina
den zerbait du eta ezin dugu gogoratu
ez noiz sortu ote zitzaion ez eta iraganean ⁴
erresuminik gabeko aldirik izan ote zuen ere.
Besterik gabe, eman dezagun ez dela desagertzen,
195 Vacuri jarraitzen dion oinaze bat dagoela; haren
hezurretan ezartzen da, ez da desegiten.
Irudi dezagun kronikoa dela, eta kontua
da ezen bereziki maltzurra dela,
zeren eta ia etengabe eta ia erabat
200 ezkutuan lan egiten baitu beti
—barrena kiskaltzen dion infernua—
eta ez dakigu baina zoritxarrez

probablement li afecti cos i ment.
No creiem que sigui important però
aquest nou dolor l'impedirà moure's
tant que fins i tot pujar un sol graó
li causarà un reguitzell de fiblades
punyents i del tot insuportables.
I podria cridar en silenci contra
aquest dolor que se li ha impregnat
des de temps immemorials podria
demanar clemència però no
li serviria de res perquè aquests
imperatius són inútils així
i tot hi ha un impuls incontrolable
que el porta a provar a reclamar respostes
però no rebrà paraules només
silenci i un pur i horrorós sofriment.

.....

seguruenik gorputz-gogo erasotzen dio.
Ez dugu uste garrantzitsua izango denik baina
205 oinaze berri horrek hainbestera galaraziko dio
mugitzea, ezen harmaila bakarra igotzeak ere
ziztada erdiragarri eta erabat jasanezin
andana bat eragingo dion.
Eta, isilean, gogoraezinezko garaietatik
210 itsatsita dakarren oinaze horren
aurka garrasi egin lezake, erruki
eska lezake, baina ez dio ezertarako
balio izango, zeren eta betebehar
horiek alferrikakoak baitira, hala eta
215 guztiz ere bada erantzunak eskatzen saiatzera
bultza egiten dion bulkada bat,
baina ez du hitzik jasoko; isiltasuna
baino ez eta erabateko sufrimendu izugarria.

.....

S'havia apoderat conquesta rere
conquesta de l'espai d'aquesta escala
que habitava i Vacu es considerava
capacitat per dominar-la en tota
l'allargada i cargolada amplitud.
A vegades potser però molt poques
admetia sentir-se realment
ufanós i enaltit i amb renovades
forces perquè pensava que podria
apropiar-se de les seves recents
descobertes noves capacitats
i a mesura que conqueria el món
—ara aquí recordem que es redueix
al passadís perforat dins la roca—
el reconeixia i també captava
algunes d'aquelles lleis més senzilles
que el governaven i així n'ampliava

220 Garaipenez garaipen, bizi zen eskailera
horren espazioaren jabe egin zen
eta Vacuk bere burua gai ikusten zuen
eskailera, bere luzera eta zabalera
kiribil osoan, mendean hartzeko.

225 Noizean behin, apika, baina gutxitan,
benetan harro eta goretsirik eta
indarberriturik sentitzen zela onartzen
zuen, zeren eta pentsatzen baitzuen
ezen azkenaldiko aurkikuntzetatik

230 gaitasun berri batzuk beregana zitzakeela
eta mundua garaitzen zihoan neurrian
—orain hemen gogorarazten dugu mundu hori
haitzean zulaturiko pasabide bat baino ez dela—
eta ezagutzen zihoan neurrian, hura gidatzen

235 zuten oinarrizko legetariko batzuk ere
antzematen zituela, eta horrela ingurune

el coneixement del resclosit entorn
per on i, per dir-ho amb una paraula
poc pejorativa, vagarejava.
Però era també per aquest motiu
quan sabia reconèixer els seus propis
límits que es trobava cada cop més
empetitit davant els misteris
que encara podria amagar l'escala.
Se n'adonava de la delicada
situació en la qual es trobava.
Patia, l'angoixava no saber
quins altres sofriments l'atacarien
cruament i terrible més amunt.
Què es pot esperar d'un ésser tan fràgil?
Llavors calia que Vacu escollís
o seguir endavant tot i desconèixer
els més que probables perills

lizunaren ezagutza handitzen zuela,
non, hitz ez oso gutxiesgarri batez
esatearren, noraezean baitzebilen.
240 Baina era berean arrazoi horrexegatik
ezagutzen zituen bere mugak ere,
alegia, bere burua gero eta txikiagotua
aurkitzen zuela, eskailerak oraindik
ezkutuan gorde zitzakeen misterioen aurrean.
245 Ohartzen zen kontuz hartzeko egoera
labainean sartuta zuela bere burua.
Gorago zenbat sufrikario gehiagok
gordinki eta izugarriki erasoko ote zioten
ez jakiteak larritzen, pairarazten zuen.
250 Zer espero daiteke horrelako izaki ahul batengandik?
Beraz Vacuk aukeratu egin behar zuen,
ala aurrera egin ia ziurtasun osoz gertatuko
zitzaizkion arriskuak zein diren jakin gabe

i assumir el dolor que l'acompanyava
sempre tan crònic i inevitable,
—tortura constant del cos i la ment—
o bé retrocedir i baixar l'escala
i en un moment de gran debilitat
deixar-se anar i caure, considerar
que no val la pena i deixar-ho estar.
Amagat dins la penombra sorgeix
la temptació d'anar cap enrere
de retrobar el que li és familiar
i conegut una manera aquesta
com qualsevol altra —sospitem
que l'única— de sentir-se segur.
Però si no li volguéssim donar
prou importància a les seves fràgils

eta onartuz beti kronikoki eta saihestezin
255 berarekin zeraman oinazea
—gorputzaren eta gogoaren etengabeko tortura—,
ala atzera egin eta eskailera jaitsi
eta ahuleria handiko une batean
bere burua bertan behera erortzen utzi,⁵
260 ez duela merezi oldoztu eta amore eman.
Ilunantzean, ezkutuan dagoela, atzera
egiteko tentazioa sortzen zaio,
etxeko eta ezagun zaiona berriro
aurkitzekoa; hots, modu bat
265 beste edozein bezalakoxea —gure
ustez bakarra— seguru sentitzeko.
Baina haren oroitzapen-erakusgai
mendreei aski garrantzirik eman

⁵ Alfredo Capellá-ren *Tan humanos* liburuak iradokitako neurtitzak.

mostres de records podria passar
que Vacu no tingués una història,
seria com si no hagués existit.
Però ara no ho considerarem
perquè seria una pèrdua estúpida
de temps i perquè el que més interessa
és seguir endavant, no descurar el ritme.
Un Vacu emprenedor es deixa portar
per possibilitats desconegudes
només entrevistes, deixar-se anar,
abandonar-se connectar amb el món
interior de l'escala afectiu
i sensorial... Però dóna un cert
estremiment o espant perquè
l'instrument de la intuïció és capaç
d'abocar passions incontrolables
i il·lusions i inquietuds i angoixes.

nahi izango ez bagenie, gerta liteke
270 Vacuk historiarik ez izatea, existitu
izan ez balitz bezalaxe izango litzateke.
Baina orain ez dugu hori aintzat hartuko
denbora galtze burugabea izango
litzatekeelako eta gehien axola zaiguna
275 aurrera egitea delako, erritmoa ez galtzea.
Vacuk, lehiatsu, susmatu baino ezin
diren aukera ezezagunek gida dezaten
uzten du bere burua, indarge etsi,
bere burua bertan behera utzi,
280 eskaileraren barne-mundu afektibo eta
zentzumenezkoarekin bat egin... Baina
nolabaiteko ikara edo izua eragiten du,
zeren eta senaren baliabidea gai baita
grina menderaezinak eta ilusioak
285 eta ezinegonak eta larritasunak isurtzeko.

Llavors si Vacu volgués descobrir
nous indrets caldria que penetrés
escala amunt la incertesa gronxar-se
en el dubte i aprofundir i prendre part
sobre una de les accions possibles
i després, un cop temptejat el nou
camp d'acció i un cop aconseguida
certa clarividència, actuar.

Les accions d'aquest pla que preveia
seguir les retenia en la memòria,
si eren encertades les tornaria
a fer servir en altres trams de l'escala
i les rebutjaria si eren inútils.

Més endavant quan l'estat de les coses
ho demanés tornaria a recórrer
a l'anterior estratègia a aquella
que va permetre a Vacu enfrontar-se

Orduan Vacuk beste leku batzuk aurkitu
nahi izango balitu, zalantza eskaileran gora
barneratu behar izango luke, ziurgabetasunean
kulunkatu eta aukeran dituen ekintzetan
290 sakondu eta euretariko baten alde ipini,
eta gero, behin ekintza-eremu berria aztertu
ondoren eta nolabaiteko buru-argitasuna
erdietsi ondoren, ekin egin beharko luke.
Jarraitu asmo zuen egitasmo horretako
295 ekintzak gogoan gordeta zituen;
egokiak baziren beste eskailera-atal
batean berrerabiliko zituen eta baztertu
egingo zituen alferrikakoak baziren.
Aurrerago, egoerak hala eskatzen zionean,
300 berriro erabiliko zuen aurreko estrategia,
alegia, Vacuri oso antzeko egoeretan
baliagarri gertatu zitzaion estrategia

a situacions de molt semblants
—com per exemple en les ocasions
que podríem pensar massa seguides
per la seva gran tendència a caure
o ensopegar més de dues vegades
per culpa del mateix graó una forma
tradicional i molt coneguda
per tots d'anomenar la incompetència—
per superar novament entrebancs
dolorosos i conflictius d'altres temps.
Actuava tornava a avançar sempre
capficat i sorrut tot esperant
la descoberta la definitiva,
la que li dugués la tranquil·litat
a aquella seva turmentada ment:
un monòleg que dispara una veu
que resulta ser, dins la ment, un altre

huraxe bera —esate baterako jarraituegiak
irudi dakizkigukeen egoeretan,
305 izan ere Vacuk joera handia zuen
harmaila berberean birritan
baino gehiagotan erortzeko eta behaztopa
egiteko, eta hauxe da, gaitasunik eza
izendatzeko moduetariko bat, ohikoa eta
310 guztiok oso ondo ezagutzen duguna—,
berriro ere behinolako oztopo
mingarri eta gatazkatsu hura gainditzeko.
Ekin egiten zuen, berriro aitzinatzen zen
beti artega eta zakar, aurkikuntzaren zain,
315 behin betiko aurkikuntza,
haren gogo oinazetsu hari
baretasuna ekarriko ziona:
bakarrizketa horrek ahots bat jaurtitzen du,
zeina buruan beste bakarrizketa bat baita;

monòleg... i així repetidament
molt endins del cap fins a l'infinit.
Què l'inquietava, què l'empenyia
i d'on provenia el desassossec?

.....
«...Sis-cents seixanta-quatre mil cent dos
sis-cents seixanta-quatre mil cent tres
sis-cents seixanta-quatre mil cent quatre...»

.....
Hi ha l'energia interna que el pertorba
si no pogués expressar ni descarregar
l'excitació que ara experimenta,
acabaria per greujar el seu mal.
Jeu i els graons se li claven al cap,
a l'esquena i a les natges, tanca els ulls
i deixa de pensar en el pas del temps.
Mentre la mà busca el membre adormit

320 eta horrela behin eta berriro errepikatzen da
gogoaren barne-muinetan infinituraino.
Zerk kezkatzen zuen? Zerk bultzatzen zuen?
Eta nondik zetorkion ezinegona?

.....
325 «...Seiehun eta hirurogeita lau mila ehun eta bi
seiehun eta hirurogeita lau mila ehun eta hiru
seiehun eta hirurogeita lau mila ehun eta lau...»

.....
Hortxe dago aztoratzen duen barne-indarra;
330 baldin eta ezin badu azaldu eta egotzi
orain sentitzen duen kitzikadura,
ondoeza gehitu baino ez litzaioke egingo.
Etzan eta harmailak buruan, bizkarrean eta
ipurdian sartzen zaizkio, begiak itxi eta
335 denboraren iragankortasunaz pentsatzeari uzten dio.
Eskuak gorputz-adar loa bilatzen duelarik,

s'acaron a el gland i els testicles bruts
i imagina que algú igual de nu
—sols podria veure un ésser com ell
perquè no en té la imatge de cap altre—
l'amenaça amb el seu penis erecte
obre les cames per sobre i li fica
la verga dura a dins la boca oberta
i l'atrau perquè el masturbi
tot i agafant-lo pels cabells i fent-li
moure el cap per ajustar-la millor
a les necessitats del seu plaer
mentre Vacu l'engrapa per les natges
per ajudar a controlar l'investida.
S'exciten a fons tots dos, llarga estona.
A poc a poc Vacu sent a la seva
mà com aquell membre adormit
es desperta amb ganes de créixer i fer

zakil-baba eta barrabil zikinak ferekatzen ditu
eta iruditzen du norbaitek, hark ere biluzik,
—bera bezalakoxe izaki bat baino ezin ikus
340 zezakeen, ez baitu beste inoren irudirik—
mehatxu egiten diola bere zakil tentearekin,
zangoak zabaltzen dituela eta buztan
gogorra aho irekian sartzen diola
eta masturba dezan bereganatzen duela
345 ileetatik hartuz eta burua
mugiaraziz bere atseginaren
beharrizantara hobeto egokitzeko,
eta Vacuk, oldarra kontrolatzen laguntzeko,
ipurmasailetatik oratzen diola bitartean.
350 Erabat kitzikatzen dira biak, luzaro.
Emeki-emeki Vacuk gorputz-adar lo hura,
hazteko gogoz eta desiraren indarra
argi uzteko irrikaz, nola esnatzen den

valer la presència del desig:
el desenllaç és del tot previsible.
En el moment culminant el fals doble
desapareix i en el punt exacte
del no retorn ve l'espessa boirina
de l'orgasme i li ofusca cos i ment:
tota la sang es concentra al sexe.
Però de sobte perceb una fiblada
horrible com si ara li traspasessin
el penis amb una agulla gruixuda.
Fosos els dos, aquesta experiència
de dolor i plaer junts no es pot descriure:
una protuberància de carn
roja de sang i anormalment inflada
fins que exploti amb l'ejaculació
fins que dolli l'esperma i li empastifi
les mans i l'espès beuratge es dispersi

sentitzen du bere eskuan:
355 amaiara guztiz aurreikusteko modukoa da.
Gorengo mailara iristean, ordezeko izaki aizuna
desagertu egiten da eta itzuli ezinezko une
zehatzean orgasmoaren lanbro lodia datorkio
eta gorputz-gogoak lausotzen dizkio:
360 odol guztia sexuan biltzen da.
Baina bat-batean sastada izugarri bat
sumatzen du, zakila orratz sendo batez
zeharkatuko baliote bezalakoxea.
Aldi berean, oinazea eta atsegina biak bat
365 egindako sentipena ezin azal daiteke:
haragi-protuberantzia bat,
odolez gorritua eta ezohiko eran puztua
eiakulazioan lehertzen den arte,
hazia isuri eta eskuak lohitzten
370 dizkion arte eta edabe lodiak lurrean

per terra: un final inapel·lable.

Després cargolat el cos pel turment
el cor recupera el ritme tranquil
i la respiració esdevé fonda.

Amb la cara tombada sobre un fred
graó Vacu reconeix el silenci
que arriba després de l'excitació.

El plaer és un regal que ve i se'n va
i dura massa poc, instants efímers,
però el sofriment té aquell gran poder
de perdurabilitat al llarg del temps.

Vacu es veu obligat a continuar
aprenent a conviure amb el dolor.

.....

Amb el pas dels dies s'imposa el deure

bukaera eztabidaezina hedatzen duen arte.

Gero, gorputza oinazeak bihurrituta,
bihotzak erritmo lasaia berrartzen du
eta arnasa sakon bilakatzen da.

375 Aurpegia harmaila hotz batean
etzanda Vacuk asalduraren ostan
datorren isiltasuna igartzen du.

Atsegina iritsi eta alde egiten duen oparia da,
gutxiegi irauten du, une ezdeus batzuk,

380 baina sufrimenduak denboretan zehar
iragankor eusteko gaitasun handi hura du.
Vacuk bere burua behartuta ikusten du
minarekin bizitzen ikasten jarraitzera.⁶

.....

385 Egunak igaro ahala bere buruari harriez

⁶ Maurice Blanchot-en *L'écriture du desastre* liburutik.

íntim de pensar contínuament
amb les pedres de no distreure's mai
perquè l'oblit més insignificant
podria redescobrir el seu turment
i esdevenir —en un futur— intolerable.
Potser Vacu s'enganyava pensant
que aprendria massa coses però
en veritat no sabem si seria
capaç de fixar la mirada sobre
les essencials i això li podria
impedir de posar ordre al seu magí
i d'assumir una actitud adequada
vers ell mateix i l'entorn de l'escala,
l'ambient semiobscur que l'envolta.
Avançant, els graons no es queden, marxen,
sempre distints s'ajorna poder entendre'ls.
En Vacu ha estat llarg temps confinat

etengabe pentsatzeko barne-barneko betebeharra
ezartzen dio, arreta inoiz ez galtzekoa,
zeren ahanzturarik txikienak ere
bere oinazea azalaraz baitiezaioke, eta hori
390 —etorkizunean— jasanezin bihur bailiteke.
Apika, Vacuk bere buruari iruzur egiten zion
gauza gehiegi ikasiko zituela pentsatuz,
baina zinez ez dakigu gai izango litzatekeen
funtsezkoenei arreta ezartzeko, eta
395 horrek bere buruan ordena ezartzea
galaraz liezaioke, bai eta berarekiko
eta eskaileraren ingurumariarekiko,
inguratzen duen gune ilunxkoarekiko,
jarrera egokia hartzea ere.
400 Aurrera egiten badu harmailak aldendu egiten dira;
beti desberdinak, gerorako uzten du haiek ulertzea.
Vacu luzaro egon da horma bion

entre aquestes dues parets i ha hagut
de dedicar gran part del seu esforç
a comptar i descomptar tots els graons
però tendirà encara a perllongar
aquesta actitud fins i tot després
dels anys quan ja no sembli necessària.
En veure's a ell mateix absort només
en el constant i repetit recompte,
corre el greu perill de dedicar tota
l'energia a aquesta perseverança
i per tant d'obstaculitzar i empobrir
la recerca d'un *perquè* a l'existència.
Vacu pensava que mai no s'havia
topat amb cap ésser com ell, o algú
de diferent, però en definitiva,
algú altre, i això li provocava
una enyorança estranya que podria

artean itxita eta bere ahaleginaren zati
handi bat eskaini behar izan dio harmaila
405 guztiak zenbatzeari eta deszenbatzeari,
baina oraindik jarrera hori luzatzera
joko du baita urteak igaro ondoren ere,
dagoeneko beharrezko ez dirudienean.
Bere burua etengabeko zenbaketa
410 jarraikor hutsean murgilduta,
indar guztiak ekin horri eskaintzeko
arrisku latza du, eta ondorioz
existentziaren *zergatiren* baten bilaketa
oztopatzekoa eta ahultzekoa ere bai.
415 Vacuk buruan zerabilen ez zuela inoiz
topo egin bera bezalako beste izaki batekin,
edota antzekoa ez zen batekin, baina
funtsean beste batekin, eta horrek
malenkonia bitxi bat sentiarazten zion,

arribar a esdevenir somnambulisme.
Parlava tot sol i ho feia amb la boca
torçada com si es dirigís a algú
que caminés al seu costat però,
és clar, sabem que no hi ha ningú més.
I doncs, per què redimonis ho feia?
Temptejant els senders de la follia,
erràtic, s'extravia en el *no-res*
i la buidor que l'arrossega mostra
un ésser d'escassa seguretat
però amb la capacitat mínima
per conviure amb totes aquestes nits:
la foscor que amunt i avall tragina.
El turmenten inútilment els actes
fútils i més irrellevants, podríem

420 azkenean sonambulismo bilaka zitekeena.⁷
Bakarrik mintzo zen, eta ahoa alboratuz
egiten zuen, bere ondoan zebilkeen norbaiti
zuzenduko balitzaio bezala, baina,
jakina, badakigu ez dagoela beste inor
425 eta orduan, zer arraiogatik egiten zuen?
Eromenaren bidezidorretan haztamuka,
alderrai, *ezerezean* galtzen da;
arrastaka darama hutsuneak eta
oso ziurtasun gutxiko izaki bat erakusten du,
430 baina gutxieneko gaitasuna baduena
gau haien guztien bizikide izateko:
gora eta behera daramatzan ilunpeen bizikide.
Ekintza ezdeus eta hutsalenek
alfer-alferrik oinazetzen dute;

⁷ Hermann Broch-en *Pasenow oder die Romantik* (gazt. *Pasenow o el romanticismo*; fr. *Les somnambules*) liburuak iradokitako neurtitzak.

assegurar que s'obstinava a prendre's
molt seriosament no importa quin
minúscul i insignificant detall.
Si l'examinem amb lupa veurem
alguns instants congelats en el temps
que no aportaran res de nou excepte
un cos mutilat i el seu sofriment,
desproveït per complet de paraula.
Veurem com el seu dolor és tempestat
que explota violentament tancada
dins la carcassa del cos i la ment.
Vacu té sempre al costat el dolor
és amb i dins ell lluny de qualsevol
possibilitat d'observar-lo des de fora
i per tant de descobrir el seu origen.
Dents premudes i arronsades les celles
la mirada sorruda i els ulls naufragats,

435 baiezta ahal izango genuke
edozein xehetasun xume eta ttipiri
garrantzi gehiegi ematen tematzen dela.
Lupaz aztertzen badugu, denboran
izozturiko zenbait une ikusiko ditugu,
440 zeinek ez baitakarte besterik
gorputz elbarri bat eta beronen
oinazea baino, hitzik batere ez duena.
Haren mina, gorputzaren eta
gogoaren kroskoan itxita, bortizki
445 lehertzen den ekaitza dela ikusiko dugu.
Vacuk beti du mina aldamenean,
minaren ondoan dago, eta barruan,
inolako aukerarik gabe kanpotik begiratzeko
eta ondorioz haren jatorria aurkitzeko.
450 Hortzak estu eta betondoa zimurtuta,
begirada ilun eta begiak galduta,

el torb enmig de les ninets folles
i els pèls de punta i el crani esquerdat,
breus gemecs i un plor que demana auxili
dedins un cos botit d'esgarrifances.

.....

Quan meditava podia arribar
fins a una conclusió aproximada
si més no fins a un lleu pressentiment
que tot i els seus ínfims i limitats
coneixements hi cercava com sense
voler-ho un *absolut* que embolcallés
tota aquella angoixada solitud.

Arribava sempre, però, a la certesa
que tots aquells raonaments que tant
el capficaven li duien només
substituts als quals era impossible
reproduir el seu veritable nom.

bisutsa begi-nini eroen erdian
eta ileak tente eta burezurra arrailduta;
zinkurintxo batzuk eta negarra, hotzikaraz
455 hanturiko gorputz barrutik laguntza eske.

.....

Gogoeta egiten zuenean, gutxi gorabeherako
ondorio batera irits zitekeen,
edo gutxienez susmo arin batera,
460 alegia, bere ezagupen murriz eta mugatuak
gorabehera, nahi gabe bezala, bilatu
egiten zuela bakardade larri hura guztia
bilduko lukeen *absolutu* bat.

Baina beti iristen zen ziurtasun honetara,
465 alegia, hainbeste artegatzen zuten gogoeta
haiek guztiak ez ziotela eskaintzen
ordezko bat baino, zeini ezin baitzitzaion
bere benetako izena birsortu.

Amarat de por la vacuïtat
del temible *no-res* el posseïa:
els sentiments que brollen d'un cor
vençut s'aboquen i moren al fons
d'un abisme del qual ningú reneix.

.....
«...Vuit-cents quaranta-cinc mil trenta-cinc
vuit-cents quaranta-cinc mil trenta-sis
vuit-cents quaranta-cinc mil trenta-set...
Si ara caic, qui anirà ningú m'anirà al darrere.
Quina és la provenença de la llàgrima
de fel, de l'esput negre i l'humor dens?»

.....
Llavors emmudí de sobte i un tel
blanc li cobrí els iris i ràpidament
un llampec blau perforà les ninetes
i la boira espessa envaí el cervell:

Beldurretan blai, *ezere*z izugarriaren
470 hutsaltasunak harrapatuta zeukan:
inor berriro jaiotzen ez den amildegian
behera erortzen dira bihotz garaitu
batek jariatzen dituen sentimenduak.

.....
475 «...Zortziehun eta berrogeita bost mila eta hogeita hamabost
zortziehun eta berrogeita bost mila eta hogeita hamasei
zortziehun eta berrogeita bost mila eta hogeita hamazazpi...
Erortzen banaiz ez zait inor atzetik etorriko.
Nondik ote datoz behazuna,
480 gorro beltzok eta kerru lodiok?»

.....
Bat-batean isildu egin zen eta mintz
zuri batek irisak estali zizkion eta supituki
oinaztargi urdin batek begi-niniak zulatu zizkion
485 eta laino lodiak burmuin osoa hartu zion:

a l'interior les veus reneixien,
sabia molt bé el què significava.

.....
vertigen mareig angoixa i deliri
visió de nens moribunds que xisclen
.....

Aquell estat era com retornar
en si després d'una embriaguesa
produïda per l'efecte d'una droga.
Sentir el mal gust i la llengua pastosa
reblit el cos amb la sensació
no gaire agradable que produeix
aturar-se després d'un llarg viatge
en l'instant que el caminar rítmic s'acaba
tot provocant a bastament silenci
perquè endins les veus ressonin encara.

barrenean berrero sortzen ziren ahotsak;
ondo baino hobeto zekien zer esan nahi zuten.

.....
zorabio burtzoro larritasun eta eldarnio
490 *hil-burren txilioka ari diren haurren ikuskizuna*
.....

Droga batek eragindako mozkorraldi baten
ondoren norbere onera itzultzea
bezalakoxea zen egoera hura.
495 Nabaritzea bai zapore txarra bai eta
mihi oretsua gorputza betetzen
batere atsegina ez den sentrazio batez,
zeina bidaiara luze baten ondoren
ibilera erritmikoa amaitzen denean gelditzeak
500 eragiten baitu, aski isiltasun sortuz ahotsek
barrenean oraindik oihartzun egin dezaten.

vertigen mareig angoixa i deliri

visió d'homes i dones que criden

.....

Sempre pensava en una altra cosa
al mateix temps que pujava l'escala,
per no perdre el temps, com si volgués
trobar una resposta més endavant
—no sap quina— magnífica o sublim.
Freqüentment es corregia inclinant
les reflexions vers aquest misteri,
llavors semblava entendre el que buscava.
D'altres, pensava de manera erràtica
i es perdia entre els seus raonaments
fins que al final deixava la recerca
d'aquell nom impossible d'esmentar.
Però quan volia allunyar aquests
pensaments perquè no el distraguessin

505

510

515

zorabio burtzoro larritasun eta eldarnio

hil-hurren txilioka ari diren haurren ikuskezuna

.....

Eskailera igotzen ari zelarik,
beti pentsatzen zuen beste zerbaitetan,
denborarik ez galtzeko, aurrerago erantzun
gailen nahiz bikain bat —ez daki zein—
aurkitu nahi izango balu bezala.
Sarritan bere burua zuzentzen zuen,
gogoetak misterio horrexetara lerratuz;
orduan, bilatzen zuena ulertzen zuela zirudien.
Bestetzueta, gogoeta alderraiak egiten zituen
eta bere arrazoibideetan galtzen zen,
harik eta azkenean aipatu ezinezko
izen hura bilatzeari uzten zion arte.
Baina, etekinen bat eskain ziezaioketen
beste arazo batzuen arreta ez galarazteko,

dels altres problemes dels quals podria
treure algun profit, llavors començaven
a aparèixer inoportuns i amb més força.
Encara que s'esforcés fins al límit
per voler ser perfecte no sabia
despullar-se de la condició
de les seves debilitats que són
l'arrel de la seva insuficiència.
Inexplicable hi ha alguna cosa
que dins la ment de Vacu neix i dolla
lentament: imatges fosques, records
perduts i un debat que prové de lluny.
Massa confús arriba al conscient
un remolí de grisos on no es pot
distingir cap forma ni cap símbol

520 gogoeta horiek urrundu nahi zituenean,
orduante hasten ziren agertzen
desgaraiz eta indar handiagoz.⁸
Perfekzioa lortu nahi izaten
muturreraino ahaleginduko balitz ere,
525 ez luke jakingo soinetik eranzten
bere ahuldadeen izaera, zeintzuk
haren gutxiegitasunaren sorburu baitira.
Bada zerbait azaldu ezinekoa,⁹
Vacuren gogoan sortu eta poliki isurtzen
530 dena: irudi goibelak, oroitzapen galduak
eta urrutitik datorren eztabaida bat.
Nahasiegi iristen da kontzientera
grisen zurrumbilo bat, non ezin baita
bereizi ez formarik ez sinbolorik

⁸ Canterburyko apezpikuaren *Proslogion*-a, Joan Paulo II.a aita santuaren *Fides et ratio*-n.

⁹ Marcel Prousten *À la recherche du temps perdu* liburuak iradokitako neurtitzak.

que es deixin interpretar o traduir.

Què puja fins a la superfície

de la consciència a sol·licitar

el dret d'esdevenir real, tangible?

Vacu es commou, es retorça i s'aixeca

dels graons i es comença a demanar

—sense deixar mai de pujar l'escala—

quin podria ser aquest capteniment

que darrerament tant el sotja.

Per què ara se n'adona i abans no?

Vol provar de fer-lo sorgir de nou

i fa marxa enrere en el pensament

tot cercant l'instant precís quan va ser

que va començar aquell desassossec.

.....

Viu sempre dins el mateix ambient:

la llum que l'embolcalla esmorteïda,

535 interpreta edo itzul daitekeenik.

Zer ari da igotzen kontzientziaren

gainazalera, zinezko, ukigai

bilakatzeko eskubidea eskatuz?

Vacu hunkitu, iraulkatu eta harmailatik

540 zutitu egiten da eta galdezka hasten da

—eskailera igotzeari utzi gabe—

zein izan ote daitekeen azkenaldian

hainbeste zelatatzen duen jokabide hori.

Zergatik ohartzen da orain eta lehen ez?

545 Jokabide hori berriz azalarazten

saiatu nahi du eta gogoetetan

atzera egiten du artegatasun hura

hasi zen une zehatza aurkitzeko.

.....

550 Beti bizi da ingurumen berean,

osorik biltzen duen argiantzean,

el silenci fosc que li prem les temples...
Torna a creure que si refà el camí
podrà descobrir la causa primera
de l'efecte que l'ha dut fins aquest
present i que l'haurà de guiar d'ara
en endavant. Però després de tant
de temps, l'esforç requerit és massa
important per a un ésser com en Vacu
que ha lluitat sempre sense descans dins
la penombra d'aquesta galeria
arrossegant a coll pors i tenebres,
i perquè des d'aquell instant cercat
en els records fins aquí no hagi res
enmig del camí de retorn, aparta
qualsevol obstacle i tot pensament
estrany i tanca els ulls amb força
i amb les mans maldestres es repassa

lokiak estutzen dizkion isiltasun goibelean;
horrelaxe dagoela, uste du bidea berregiten
badu, orainaldi honetara ekarri duen eta
555 hemendik aurrera gidari izan beharko duen
ondorioaren lehen kausa aurkitu ahal izango
duela. Baina hainbeste denboraren ondoren,
egin beharreko ahalegina gehiegizkoa da
Vacu bezalako izaki batentzat, zeinak
560 beti borrokatu baitu atsedetik gabe
zulo horretako ilunantzean, bizkarrean
arrastaka daramatzala beldurrak eta ilunpeak;
eta oroitzapenen artean une hura aurkitzetik
orain arterainoko itzulbidearen erdian
565 ezer egon ez dadin, gogoeta bitxi eta oztopo
guztiak baztertzen ditu, eta indarrez ixten
ditu begiak eta esku baldarrez aurpegia
eta gorputza zeharkatzen ditu, harrapatzen

la cara i el cos com si Vacu volgués
arrancar-se el filferro espinós que l'envolta
i l'atrapa inflingint-li dolors terribles:
talls llaurats a la pell, profunds, ferides
que travessen límits de la sofrença.

.....
vertigen mareig angoixa i deliri
visió de nens moribunds que xisclen
vertigen mareig angoixa i deliri
visió d'homes i dones que criden
.....

Llavors sembla que, com mai, es concentra
perquè cap distracció no el faci fora
d'aquest estat d'embadaliment crític
i es prepara per fer una nova temptativa
suprema com si es volgués revelar
contra aquesta angoixa que l'aclapara.

eta min izugarritz biltzen duen
570 burdin hari arantzaduna kendu
nahi izango balu bezala, zeinak
azala urratzen baitio eta zauri
sakonak eragiten, oinazearen mugaraino.

.....
575 *zorabio burtzoro larritasun eta eldarnio*
hil-burren txilioka ari diren haurren ikuskizuna
zorabio burtzoro larritasun eta eldarnio
txilioka ari diren gizon-emakumeen ikuskizuna
.....

580 Orduan badirudi inoiz ez bezala kontzentratzen
dela eta ezerk ere ez duela aterako
barne biltze-egoera kritiko horretatik,
eta beste saiakera gailen bat egiteko
prestatzen da, indargabetzen duen larritasun
585 horren aurka altxatu nahi izango balu bezala.

Però després una vegada més
torna a experimentar el buit del no-res,
s'atura i per uns breus moments ni pensa.

De seguida i sense saber per què
torna de nou a pujar i baixar escales
diverses vegades com si volgués
recuperar el recompte dels graons
la seguretat que dóna un món tangible.

Sap que el seu viatge per la memòria
ha estat un fracàs: ha tornat ben viu
el desencís i s'ha sentit més miserable.

.....

«...Un milió cent mil cinquanta-un
un milió cent mil cinquanta-dos
un milió cent mil cinquanta-tres...»

.....

Aquesta galeria que s'enfilava

Baina ondoren berriro ere *ezerezen* hutsunea
nabaritzen du, gelditu egiten da
eta une batez pentsatzeari uzten dio.

Jarraian eta zergatik ez dakiela, osterera ere
590 zenbait aldiz harmailak igotzen eta
jaisten hasten da, harmailen zenbaketari
berriro ekin nahi izango balio bezala:
mundu ukigaiak ematen duen ziurtasuna.

Badaki oroimenean barrena egin duen bidaiak
595 txulut egin duela: bizi-bizi itzuli dio etsipena
eta are dohakabeago sentitu du bere burua.

.....

«...Milioi bat ehun mila eta berrogeita hamaika
milioi bat ehun mila eta berrogeita hamabi
600 milioi bat ehun mila eta berrogeita hamahiru...»

.....

Haitzean zulaturik goratzen zen

foradada dins la roca era plena
d'esquerdes obertes a les parets
que regalaven un llim purulent:
ferides a la pell del mateix Vacu.
Aquella escala que mai no acabava
l'havia abandonat enmig d'un túnel
anant amunt i avall vers un final
que no arribava que no s'entreveia.
Corria imaginant que la suor
era sang i pus pestilent que brollaven
de les parets nafrades, sang espessa
que a poc a poc regalimava fins
els graons i li xopava els peus nus.
Quan l'aire esdevenia irrespirable,
feixuc, les tenebres l'embolcallaven

galeria hori hormetan irekitako
arrailduraz beterik zegoen,
605 eta arrailduroi lohi zornetsu bat zerien:
Vacuren beraren azaleko zauriak.
Inoiz amaitzen ez zen eskailera hark
tunel baten erdian utzi zuen bertan behera,
iristen ez zen, antzematen ez zen
610 bukaeraren bila gora eta behera zebilela.¹⁰
Korrika zihoan eta uste zuen izerdia
horma zaurituetatik isurtzen zen
zorne kiratsua eta odola zela,
harmailetara tantaka erori eta
615 oin hutsak blaitzen zizkion odol lodia.
Airea, astun, ezin arnastuko
bihurtzen zenean, ilunpeek inguratu

¹⁰ Louis Ferdinand Celine-ren *Voyage au bout de la nuit* liburuak iradokitako neurtitzak.

i el pressionaven com si un colós
enujbat i iracund l'hagués segrestat
entre les seves mans per esclafar-lo.
Encara que cridés i xisclés tot
demanant ajuda, terroritzat,
sabia que ningú l'escoltaria.
I quan ja no podia avançar més
ert sentia els forts batecs a les temples.
Volia aturar el cor, tranquil·litzar-lo,
perquè mai no ho faria per si sol:
lliurar-lo i ajudar-lo a reposar.
Estava en perill constant. La frontera
entre la vetlla i el somni entre el ver
i l'irreal, és una zona desprotegida
dels possibles obstacles, dels paranys

eta estutu egiten zuten, gizandi sukoi
eta haserrekor batek bahitu izan balu bezala,
620 bere eskuen artean zanpatzeko.
Garrasika eta txilioka laguntza
eskatu izan balu ere, beldurrak jota,
bazekien inork ez ziola kasurik egingo.
Eta gehiago aurreratu ezin zuenean,¹¹
625 zurrun, taupada sendoak sentitzen zituen lokietan;
bihotza mantsotu nahi zuen, lasaiarazi,
hark bere kabuz ez baitzuen inoiz egingo:
askatu eta pausatzen lagundu.
Etengabeko arriskuan zegoen; esna-aldiaren¹²
630 eta loaldiaren, egiazkoaren eta itxurazkoaren
arteko mugak ez du babesik eskaintzen
ez balizko oztopoen aurka, ez segaden aurka,

¹¹ Marguerite Duras-en *La douleur* liburuko esaldi batek iradokitako neurtitza.

¹² Waltraud Anna Mitgutsch-en *Ausgrenzung* (gazt. *La frontera*) liburuko ahapaldi batek iradokitako neurtitzak.

i dels abismes que a cada nou pas
es podrien obrir i, tot i que mai
no l'hi havia passat, desconfiava.
I sempre que tornava a tenir aquests
pensaments les cames li feien figa,
fent tentines pujava a poc a poc
com si un abís l'hagués de sorprendre.
En aquesta vida tan maquinal
com la seva, què passarà *demà*?
I què va passar *ahir* o *abans d'ahir*?
Endins la profunditat del cervell
de Vacu tots els pensaments es perden.
Així doncs s'esdevé que intentar
reproduir el temps és feina perduda,
tots els esforços són inútils.
I comença per un lleu cansament
imperceptible com quan un dia

ez eta urrats bakoitzean ireki zitezkeen
amildegien aurka ere eta, sekula
635 gertatu ez bazitzaion ere, ez zen fio.
Eta berriro ere gogoeta horiek azaltzen
zitzazkionean, zangoek huts egiten zioten;
balantzaka, poliki-poliki goratzen zen, osin batek
ustekabeen harrapatu behar balu bezala.
640 Harena bezalako makina-bizitza hartan,
zer gertatuko ote da *bihar*?
Eta zer gertatu ote zen *atzo* edota *herenegun*?
Vacuren burmuinen barnetasunean
gogoeta guztiak galdu egiten dira.
645 Horrela, bada, denbora errepikatzen
saiatzeak ez du ezertarako balio,
ahalegin guztiak alferrikakoak dira.
Eta ezin nabaritzeko nekadura arin batez
hasten da, nola gertatzen baita, egun batean

imaginem que sentim una veu
 molt llunyana que ens murmura
 a cau d'orella i després de parar
 atenció ho deixem estar perquè
 no creiem que hagi estat real, possible.
 Un bon dia quan Vacu ja no ho espera,
 treu el cap tot dissimulant aquell
perquè i tot es comença a esfondrar.
 Tremola com si tingués fred, s'asseu,
 i assetjat per la foscor, tot sol, plora.
 A què ve de donar a un infeliç la llum
 la vida als qui tenen l'amargor al cor
 que aspiren a la mort sense que vingui?

 No, Vacu no ha estat mai savi en la seva

650 belarrira xuxurlatzen digun urruti-urrutiko
 ahots bat entzuten dugula uste dugunean,
 eta arreta ezarri ostean bertan behera
 uzten dugunean, uste izan dugulako
 ez dela izan benetakoa, gertagarria.
 655 Vacuk jada uste ez duen egun batean,
zergati hark erdi ezkutuan burua ateratzen du
 eta dena hasten da bertan behera erortzen.
 Hotz izango balu bezala dardarka, eseri egiten da,
 eta iluntasunak jazarririk, bakarrik, negar egiten du.
 660 Zergatik eman argia zoritxarrekoari,
 zergatik bizia atsekabea baizik ez dutenei?
 Heriotzaren zain daude, eta ez zaie etortzen.¹³

 Ez, Vacu inoiz ez da jakintsu izan bere bakardadean,

¹³ Itun Zaharretik kopiaturiko neurtitzak: *Joben liburua* (Job 3,20-21).

solitud mai no ha sabut què fer amb ella
i no creu amb cap més-enllà enfonsat
com es troba en el fang del infortuni.
Ara, després de tant temps, tant que ja
ni se'n recorda, gairebé no té
un instant de tranquil·litat:
en aquestes escales el percaça
el bleix dels somnis més terribles.
Llavors és difícil de fixar l'instant
precís quan Vacu va fer el pas subtil
i l'esperit apostà per la mort.
Inquiet i desitjós de conèixer,
si encara fos capaç de mirar més
enllà de si mateix i d'aixecar
la mirada per damunt de les pròpies

665 ez du inoiz jakin zer egin harekin
eta ez du beste mundu batean sinesten,
zoritxarraren lokatzetan murgilduta.
Orain, hainbeste denboraren ondoren,
hainbeste, gogoratu ere ez dela egiten,
670 ia ez du lasaitasun une bat ere:
harmaila horietan amets beldurgarrienen
arnasestuak jazartzen du.
Beraz, zaila da zehazki ezartzea Vacuk
noiz eman ote zuen urrats sotila eta
675 espirituak heriotzaren alde noiz egin ote zuen.¹⁴
Geldigaitz eta ezagutza-gosez,
oraindik gai izango balitz
bere burua baino harago begiratzeko
eta bere beldurren gainetik begirada jasotzeko,

¹⁴ Albert Camusen *Le mythe de Sisyphe* liburuak iradokitako neurtitzak.

pors, tindria la possibilitat
de recuperar l'interès per viure.
Quan una d'aquelles veus li va parlar
fa molt de temps i pogué fer callar
el seu turment, una altra la recita
ara i reprèn el lament en el punt
en què terrible es va interrompre.

.....
vertigen mareig angoixa i deliri
visió de nens moribunds que xisclen
vertigen mareig angoixa i deliri
visió d'homes i dones que criden
.....

I se'ns escapa alguna cosa, quina?
Què fa que aquesta despulla s'aferra
a l'escala que pagui tan la pena?
No ha après de la tràgica experiència

680 aukera izango luke bizipoza berreskuratzeko.
Aspaldi handian harako ahots
haietariko bat mintzatu eta barreneko
oinazea isilarazi ahal izan zionean
bezalaxe, orain ere beste ahots
685 batek hitz egin eta berrartu egiten
du auhena, bortizki eten zen unean.

.....
zorabio burtzoro larritasun eta eldarnio
hil-burren txilioka ari diren haurren ikuskizuna
690 *zorabio burtzoro larritasun eta eldarnio*
txilioka ari diren gizon-emakumeen ikuskizuna
.....

Eta zerbaitek alde egiten digu, zerk?
Zer ote da giza hondakin hori eskaileran eustera
695 bultzatzen duena eta hainbeste merezi duena?
Zoritarreko esperientziak ez al dio erakutsi

que només hi trobarà sofriment?
Es manté constantment en un esforç
extrem, solitari, i sap que en aquesta
consciència en aquesta revolta
està desafiant una resposta.
Vacu un sac d'ossos amagrit, deforme,
cruixit pel dolor del cos i la ment
gairebé impossibilitat per moure's
despullat brut per les incontinències
nafrats la pell i els llavis, esqueixats,
s'arrossega feixuc i... No podrà.
Tus i s'ennuega i perboca espus
però amb les mans esgarrapa graons
a l'escala amb l'ànim d'anar pujant,
lentament, però, el pes de l'existència.

sufrimendua baino ez duela aurkituko?
Etengabe eusten dio ahalegin muturreko
bakartiari, eta badaki kontzientzia
700 horretan, bihurgune horretan,
erantzun bati erronka jotzen diola.
Vacu hezur-zaku argal, desitxuratuta,
gorputz-gogoen minek akituta,
ia mugitzeko ahalmenik batere gabe,
705 biluzik, eutsi ezineko jarioek zikinduta,
azala eta ezpainak zaurituta, urratuta,
baldarki arrastatzen da eta... Ezin izango du.
Ia itoan, eztul egin eta gorroak jaurtitzen ditu,
baina eskuekin harmailak urratzen dizkio
710 eskailerari, existentziaren zama,
emekie-emeki, gora jasotzeko asmoz.

Després de tants anys d'incessant dolor
ell és en cert sentit només ferida,
el seu caràcter ja és inseparable
del seu sofriment: íntima unió.
Dins de l'escala se senten sorolls
esmorteïts una certa remor
d'algú que camina que s'arrossega.
S'escolta una veu gairebé inaudible
d'un ésser adolorit, amb tot, no són
veritablement paraules, s'assemblen
més als laments d'una ferida oberta.
Llavors tot el que es veu i es percep
es comprimeix en una sola imatge
que expressa una llarga metamorfosi
resultat d'un prolongat sofriment.

Oinaze etengabeko hainbeste urteren ondoren,¹⁵
nolabait, Vacu bera ere zauri baino ez da,
dagoeneko haren izaera eta haren oinazea
715 banaezinak dira, batasun hertsia.
Eskailera barruan hots ahul batzuk
entzuten dira, ibiliz, arrastatuz,
ari den norbaiten zurrumurrua.
Izaki zauritu baten ahots
720 ia entzunezina aditzen da,
hala ere, egiatan ez dira hitzak;
zauri ireki baten alarauak dirudite.
Orduan, ikusten eta aditzen den guztia
irudi bakar batean biltzen da, zeinak
725 oinaze iraunkor batek eragindako
metamorfosi luze bat erakusten baitu.

¹⁵ Sofoklesen *Filoktetes*-en minean oinarrituriko neurtitzak.

Arribarà a descobrir que patir
es pot considerar com el seu
veritable fat on el patiment
és la seva tasca, l'única tasca.
Així potser ara podria entreveure
que fins i tot ell, sofrint tant, és únic
i que està molt sol, ningú no el podrà
alleujar o sofrir en lloc seu; existeix
sols una oportunitat i radica
en la manera de com ho suportis.
Què hi farem. Amb tot, cal que segueixi?
No ho sabem. Vacu ja no té res més
a perdre en aquesta vida ridícula.
I doncs a continuació i ràpid
brodarem artificis més o menys

Azkenean jakitera iritsiko da sufritzea ¹⁶
benetako patutzat hartu beharko duela,
sufritzea baita haren betebeharra,
730 betebehar bakar-bakarra.
Apika, horrela orain suma lezake
bera ere, hainbeste sufritzen duelarik,
berdingabea dela eta oso bakarrik dagoela;
inork ezin izango du haren larria arindu
735 edota haren ordeztu; duen aukera
bakarra pairatzeko moduan datza.
Tira, zer egingo diogu, baina beharrezkoa al
da aurrera jarrai dezan? Ez dakigu. Vacuk jada
ez du ezer galtzeko bizitza zentzugabe honetan.
740 Eta beraz, jarraian eta bizkor,
artifizio sendo samarrak brodatuko

¹⁶ Viktor Frankl-en *Ein Psychologe erlebt das Konzentrationslager* (gazt. *El hombre en busca de sentido*; fr. *Découvrir un sens à sa vie*) liburuak iradokitako neurtitzak.

consistents per salvar les restes
encara que creiem sincerament
que les oportunitats de reeixir-hi
són massa reduïdes. Ho veurem.

.....
«...Un milió tres-cents quatre mil cinc
un milió tres-cents quatre mil sis
un mil... Com? Què fa aquí aquesta paret?
No pot ser no ho entenc no puc seguir.
L'escala acaba i no hi ha més graons...!»

.....
Sense poder assumir ja de cap manera
la situació proferí un crit
terrible i esgarrifós com si sortís
d'un condemnat a les pitjors tortures,
nascut de la profunditat de l'ésser
—fins a nosaltres ens ha commogut—

ditugu hondarrak salbatzeko,
nahiz eta zinez uste dugun
arrakasta lortzeko aukerak
745 urriegiak direla. Ikusiko dugu.

.....
«...Milioi bat hirurehun eta lau mila eta bost
milioi bat hirurehun eta lau mila eta sei
milioi b... Zer? Zer egiten du horma honek hemen?
750 Ezinezkoa da, ez dut ulertzen, ezin dut jarraitu,
eskailera bukatu egiten da, ez dago harmaila gehiagorik...!»

.....
Jada egoera inola ere ezin onartuz,
garrasi latz eta erdiragarri bat jaurti zuen,
755 torturarik izugarrienetara zigorturiko
batengandik jalgiko balitz bezalakoxea;
izakiaren barru-barrutik sorturiko
—geu ere hunkitu egin gaitu— garrasia,

un crit que duu ràbia continguda
i dolors acumulats i macerats
durant anys, fins aquí: tota una vida.
Però, què és el que veiem? Què passa?
Després de tot aquest seu sofriment
l'envaeix un sentiment una estranya
i tranquil·la sensació de pau
com si unes mans suaus, desconegudes,
li acaronessin les seves ferides,
les del cos endins i les de la ment:
respirar uns instants imperceptibles
sense témer les punyents conseqüències.
Llavors l'impensable: **Vacu ens somriu!**
.....
Callem i arribats a aquest punt callem.
Davant d'un ésser sofrent que ha pogut
suportar tant de dolor tot aquest

zeinak bere baitan baititu amorru etsia
760 eta urte luzez metaturiko eta beraturiko
oinazeak, oraintxe arterainokoak: bizitza oso bat.
Baina, zer ari gara ikusten? Zer gertatzen da?
Sufrimendu horren guztiaren ondoren,
sentimendu batek hartzen du,
765 baretasun-sentipen bitxi eta nare batek,
esku leun, ezezagun, batzuek bere zauriei,
gorputz barrukoei eta burukoei,
laztan egingo baliete bezalakoxea:
arnasa hartu une labur batzuez,
770 ondorioen ziztaden beldurrik gabe.
Horra pentsaezina: **Vacuk irribarre egiten digu!**
.....
Isildu egiten gara behin honaino iritsita isilik.
Denbora honetan guztian hainbeste oinaze
775 pairatzeko gai izan den izaki sufritzaile baten aurrean,

temps, només podem callar i observar.

.....
(Així és que sobre les realitats
més importants i alhora radicals
no se sap gran cosa, res no es pot dir.
No hi ha ahir ni demà. Tot és ara
Posa aquest final de manifest
el *no-res* o la *transcendència* ?
La vertadera i única sortida
de l'escala es troba precisament
allà on no n'hi ha cap de possible?)
.....

isilik egon eta behatu baino ezin dugu egin.

.....
(Horrela bada, errealitate garrantzitsuenei ¹⁷
eta, aldi berean, funtsezkoenei buruz
780 ez dakigu gauza handirik, ezin da ezer esan.
Ez dago ez atzorik ez biharrik. Dena da oraina. ¹⁸
Bukaera honek argi azaltzen al ditu
ezereza edota *transzendentzia*? ¹⁹
Eskaileraren irtenbide zinezko
785 eta bakarra, irtenbide posiblerik ez
dagoen gune berberean ote dago?)
.....

¹⁷ Ludwig Wittgensteinen *Tractatus logico-philosophicus* liburuari Josep-Maria Terricabrask egindako hitzaurreak iradokitako neurtitzak.

¹⁸ Albert Camusen *Le mythe de Sisyphe* liburuak iradokitako neurtitza.

¹⁹ Erabat gailenagoa dena, Vacuren esperientzia baino harago dagoena.

HITZ-ATZEAK

QUERALT FILOSOFIAREN ARGITAN

Halaber, jainko bat gurtzen dute, Simaur deitzen dena,
eta seguruenik erregearen irudira eta antzera asmatu dutena;
izaki elbarria da, itsua, erkina eta mugagabeko boterea du.

JORGE LUIS BORGES, *El informe de Brodie*

Idatziriko guztiaren artean, norik bere odolaz
idazten duena soilik maite dut nik.

FRIEDRICH NIETZSCHE, *Honela mintzatu zen Zaratustra*

Aldez aurretik filosofiari eta arteari begiratu bat

Heidegger Marburg-en irakasle zelarik, ikasgela mukuru betetzen zuela esaten dute; haren irakasgaien izen emanda ez zeuden ikasleak ere entzutera joaten zitzaizkion. Ohikoa al zen, urte haietan, halako gertakaririk? Zergatik erakarri ote zuen beregana, *Sein und Zeit* (*Izatea eta denbora*) argitaratu aurretik ere, Husserlen jarraitzaile zen filosofo gazte hark hain ikasle-kopuru handia? Dirudenez, hura entzutera bultzatzen zutena tamalez gertakari paradoxiko bat zen: filosofo hark, bere hitzaldi magistraletan, bizitzea egokitu zitzaien munduan indarrean zeuden gaiez, errealitateaz, hitz egiten zien; hausnarketa filosofikoan oinarrituz, norabide batzuk, itxarobide batzuk ematen zizkien, euren etorkizunera begira. Garai hartako Alemaniako beste irakasle eta filosofo batzuekin alderatuz, Heideggeren filosofiak zinezko pentsamendu izan asmo zuen; urrutirago joan gabe, bere maisu Husserli existentziaren abstrakzioa egitea aurpegiratzen zion, parentesi artean ipintzen baitzuen (*epoché* fenomenologikoa), baina, zinez, existentziak eta Izateak izan behar lukete gure ikerketen ardatz.

Beharbada, norbaitek galde egin lezake zer munta ote duen horrelako «gertaldi» batek Manel Queraltan lanaren sarrera-hitzaldi batean. Munta handia, nire ustez. Queraltak olerkiak idazten dituen gure mundu honetan, filosofia hodeietan dago, baina ez hori

bakarrik, sarritan egin ohi izan duen modura, aspaldi handitik hona bere buruari harrika ere ari da. Nagusi bilakatu diren balioetan eraikitako zientziaren aurrean, halako linbo bitxi batera burumakur baztertu da, han, apaltasunez, biziraun ahal izateko, edota argi eta garbi bere burua ukatu du (zenbait filosofok esan dute gaur egun filosofia posible bakarra filosofiaren historia dela, garai hobegoen zain; badira, halaber, *pentsamendu ahul* batez mintzatu direnak, Vattimo esate baterako).

Baina, galde egiten dut: posible al da filosofiarik gabe bizitzea? Hasiera batean, baietz irudi lezake. Gure tradizio mendebaldarraren osagai diren hausnarketa nahasi haiek, alegia, elkarren aurkako sistema filosofikoen arteko tirabirek (filosofok armadarik ez dutelako muturrekoka hasiera iristen ez zirenek) leku egin diote zientziari, ezagutzeko behin betiko modu horri, zeinak, dakarren alde teknologikoaz gain, nolabaiteko izaera «demokratikoa» ere bai baitu (teoria eta hipotesi guztiak metodo zientifikoen irizpidearen mende egon behar baitute). Ez da nire asmoa zientziaren balioa eta Unibertsoari buruz eskaintzen dituen ezagupenak zalantzan ipintzea, ezta haren erabilgarritasuna ere. Aipatu nahi dudana gauza bakarra da zientzia, bere *modus operandi*ari berez dagozkion mugak direla eta, ez dela gauza gizakiari eta gizarteari dagozkion gorabeherak azaltzen dituen erantzuna emateko. Zer du, orduan, gizakiak munduan zehar bide-erakusle, filosofiak abandonatu egin baitu eta zientziak ezin baitio erantzun? Oraindik erlijioak aintzakotzat hartu behar al ditugu? Sinis dezakeenak, sinis dezala. Nolanahi ere den, bakoitzaren uste sendoak gorabehera, iruditzen zait sistema teologikoen arriskua aipatu egin behar dela, berez daramaten subjektibotasunarena, bai eta etorkizuneko ikusmoldea arrazionaltasun dialogikora daraman bidetik zuzendu behar dela ere. Eta kontu horretan beharbada literaturak zeresan handia izan lezake.

* * *

Aurreko oharrek, zorionez baina baita zoritxarrez ere, gaur egungo kulturaren antzeman dezakegun fenomeno bat erakusten dute: filosofiak, alegia, munduari buruz hausnartzeko eta giza bizitzarako erreferentziak eskaintzeko gaitasun eta beharrian horrek, literaturaren

(eta zinea bezalako beste arte batzuetan) bilatu du babeslekua. Hantxe aurkitu du lurralde egokia, aurki zezakeen bakarra, gaur egungoa bezalako mundu nahasi batean gizakiaren lekuaz gogoeta egiteko. Literatur genero guztiak (eleberria, antzerkia...) hartzen ditu, baita poesia ere, nahiz eta beharbada maila apalagoan eta modu anbiguoago batean: ez da hori Manel Queralten kasua, *neurritz*-filosofoa baita, ahalik eta irakurle-kopuru handienari gizakiaren eta berorren errealitatearen azalpen (tragikoki bizitako) bat helarazi nahi diena, haiek euren existentzia «bitxiak» («alienatuak»²⁰ ez esatearren) hausnar eta berriro planteatzen dituzten; zeren eta Queraltrek poeta-filosofo izateko idazten baitu eta ez soilik bere bizipena azaltzeko.

«Zorionez baina baita zoritxarrez ere» idatzi dut goraxeago. «Zorionez» bistakoa da: literatura, bereziki narraziogintza, hartzaile-kopuru handia duen komunikabidea da; filosofia bezalako beste kultur ekoizpen batzuk ez bezala, literatura *mass-medi*en begiko da *oraindik ere* eta idazleak aukera horretaz baliatzen dira euren jarduera kontzientziatze-lan bilakatzeko. Baina «baita zoritxarrez ere» zeren eta sarri idazlea filosofo *amateur* (edo sasi-filosofo) izan ohi baita, edota bere lan guztia hiru edo lau ideia oso erabilitan oinarritzen baitu, askotan muturreko sinpletasuna dutenak, kasu bietako batean ere pertsonaietan eta egoeretan sakondu gabe eta baliozko ikuspuntutik eskaini gabe. Manel Queralt, aitortu behar dut, *rara avis* bat da egoera antzu horretan. Harrigarria da haren analisisen sakontasuna, bai eta haren olerkien adierazpen-indarra eta zinezkotasuna ere, bizitza eta adimena aurkakotzat hartu behar ez diren adierazgarri garbi. Hura bezalako beste batzuk ere badaude, nork uka? Baina gehienak batere beharrezko izan gabe argitaratzen diren liburu pilan galdua daude, eta beste batzuek ez dute sekula lortuko argitaratuta plazaratzerik. Dena dela, Queralten lana irakurtzeko zortea dugu eta, lanaren kalitate poetikoa alde batera utzita, mintzagai dituen gaien buruzko hausnarketa filosofikoa egiteak merezi du.

²⁰ Alienazioa, ez ohiko zentzu klinikoan (buruko gaitza), baizik eta zentzu filosofiko batean; hona hemen esanahia: «norberaren berezko errealitatetik kanpo existitzea».

Idazlana poesia modernoaren testuinguruan

Manel Queralten lanari buruz egitea pentsatu dudan moduko gogoeta batek aurretik bereizkuntza bat egitea eskatzen du. Haren poesia poesia filosofikoa denez, haren olerkietan azaltzen den filosofia aztertzeraz jo genezake zuzen-zuzenean. Haatik, idazlanaren edukiaren azalpen hutsak eginbehar horren ikuspegi murrizta eskainiko liguke. Beraz, horrez gain, beharrezkoa da poesia zehatz horren kokapenari buruzko hausnarketa filosofikoa ere egitea; hau da, artearen historian duen zentzuari eta ingurune sozialarekiko betetzen duen edo bete nahiko lukeen funtzioari buruzko hausnarketa egitea. Era horretako gogoetek Queralten poesia Estetikaren (arteari buruzko hausnarketa filosofikoaren) ikuspuntutik aztertzeraz bultzatuko gaituzte.

Erromantizismoak arte-sorkuntzaren paradigma izateari, hots, adierazpide zehatz bat bultzatzen eta gutxieneko komunikagarritasun unibokoa ahalbidetzen zuen erreferente kultural eta axiologikoa izateari utzi zionetik, arteak gero eta gehiago jo du formalismora, hau da, artelana alderdi formalen arabera balioestera, alderdi estetiko hutsen arabera; poesiari dagokionez, musika eredu hartuta eta esanahiaren arloan konnotazio «irekiak» bilatuz. Bide horri jarraituz, XIX. mendearen amaieran, Walter Pater ondoko baieztapena egitera iritsi zen: «arte-mota guztiek musikaren izaera dute jomuga». Aipagarria, baita ere, Mallarmeren poesia, zeinak, idazterakoan, hitzen eta irudien arteko jolasa bera hartzen baitzuen abiapuntutzat, haien musikaltasunaren zuzendaritzapean sortzen den efektu anbigua bilatuz. Artearen Teoriaren arloan, antzeko jarrerak azaldu ziren; Richards-en tesi nagusia (kritikari hori bereziki arte plastikoei buruz ari bazen ere) esanguratsua da, ondoko baieztapena egin baitzuen: «artelanaren forma da haren edukia». Egia da, Sinbolismoaren eta Modernismoaren ondoren, Abangoardiak agertu zirela, formak suntsituz eta adierazpen-asaldurari garrantzia emanez, *grosso modo*; baina, arteari egiten dizkieten ekarpenak gora-behera, Abangoardiak, funtsean, apurketan eta gizarte-matxinadan oinarrituriko bizi-jarrera modura ulertu behar dira. Egia da, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, errealismo poetikoan oinarrituriko mugimendu garrantzitsua loratu zela, baina gerrak (Espainian, Gerra

Zibilak) eragindako traumari aurre egin beharrari eta konpromiso berrien aukera erakutsi beharrari erantzuten zion.

Bere baitan zuen Erromantizismoak Ilustrazioak definitu eta gauzatu nahi zuen Modernitatearen Egitasmoarekin bat zetorren poesia-egitasmoa (Rilkek, azken poeta erromantikoak, zehaztu zuen egitasmo hori, edo gutxienez abiapuntua, bere mugak ezarriz — Kantek bere garaian filosofiaren arloan egin bezala— eta bere helburua zehaztuz). Arte postmodernoarekin eta bere *pathos*-ean inspiratzen den filosofia postmodernoarekin, egitasmo hori apurtu egiten da, bai gizarte zuzenaren eta gizaki askearen onarpenari dagokionez (Kontakizun Handien erorketa), baita arteak munduarekin ezagutza- eta bizi-harreman zuzena ezartzeko gaitasuna duela baieztatzen duen ideia bertan behera uzteari dagokionez ere. Artelanak isiltasuna baino ezin du erakutsi; hau da, gizakiaren (artistaren) hizkuntzaren eta errealitatearen arteko haustura edo amildegia. Artearentzat biderik gelditzekotan, bide hori ironiarena litzateke, artea arteak berak ukatzen dueneko ironia.

* * *

Isiltasunera bideraturiko artearen ikusmolde postmoderno horren arabera, Manel Queralten poesia *iruzur*-modu bat baino ez litzateke izango, kritikari askok zaharkitutzat joko luketen ausarkeria xaloa. Baina formaren isiltasuna bera ere iruzurtzat du Roland Barthesek, eta kontsekuenteak bagina, isiltasunari ihes egiteko beste biderik ez genuke izango «erabateko mututasuna» baino (*Idazkuntzaren zero gradua*).

Orduan, ez al da hobe «hitz egitea», ezen ez bere funtzioa ukatu arren, bere burua gauzatzeko ausardia duen artea egitea baino? Ez al da hobe arriskatzea eta artistaren hitzei eta zeinuei, mundua, eta berorren balizko zentzua, astintzen jarrai dezaten uztea, bertatik egia-papurtxoren bat baino ez bada ere atera ahal izateko? Egia da bai poesiaren egitasmoa, bai eta Modernitatearen Egitasmoa ere, hil egin direla (hori gauzatzek, seguruenik, inkomunikaziora eramango gintuzke, bere baitan hermetikoki itxitako idazlanera, naturako izate

baino ez den poema-objektu ulertezinera).

Beraz, jarraitu egin behar da, poesia egiten ahalegindu; hitzak mintza daitezela, nola edo hala: arriskatuz neurotikoki errepikatzen, barregarri gelditzera edota huts egitera (zeren arabera, ordea? galde egin genezake). Manel Queraltaren poesiak arrisku hori hartu egiten du, baina jakinaren gainean (olerkari gehienek ez bezala, hizkuntzaren izaera traidorea ez baitute kontuan hartzen). Poesia tolesgabea irudi lezake, baina ez da, zerengatik, hain zuzen ere, Manel Queralt ez baita mugatzen bere neurtitzek (bere ahots poetikoak) bizi dugun munduari buruzko bere ikuskera eta bere sentimenduak besterik gabe eta burugabeki adierazten uztera, baizik eta mila bider baino gehiagotan esandako betiko hitz horiek (metaforak, irudiak, poetek noiznahi erabiliriko baliabideak) existentziaren zoko guztiak zeharkatu eta argitzeko erabiltzen ditu eta horrela erakusten dizkigu bai bere dialektika, bai gaur egungo norbanakoaren ibilera bihurriak, bai eta honen artegatasuna ere hain mundu konplexu batean.

Queraltaren poesiak hemeretzigarren mendeko Erromantizismoaren oihartzunak baditu ere (poema handiek Keatsenak, Hölderlinenak, Byronenak eta Pushkinenak gogorarazten dituzte), antzekotasun hori ez da ez imitazio-gogoaren ondorio, ezta sasi-olerkariak berezko duten erromantizismo merkearen isla ere. Zinezko erromantikoek norbanakoaren eta Absolutuaren arteko dikotomia adierazten zuten; lehenengoa larri, bien arteko amildegiaurrean. Zentzugabea litzateke Queraltak, XXI. mendeko olerkaria izanda, horrelako planteamendu bat egitea. Izan ere, existentzialisten erara, «zentzuak» kezkatzen du; gai gori-goria, nahiz eta gaur egun gaizki ikusita egon. Haren lanaren arlo funtsezko horri buruz, aurrerago mintzatuko gara. Hemen, besterik gabe aipatu nahi dudana da, norbanakoaren eta Absolutuaren arteko dikotomia norbanakoaren aldera lerratzen duela: Queraltaren erromantizismotik ez da besterik gelditzen gizaki zauritua, txikitua, baino; eta Absoluturik, gizakia nihilismoan erortzetik aska dezakeen gutxieneko zentzurik, baldin badago, Absolutu hori zintzilik uzten du. Besterik gabe, bizitzen jarraitu ahal izateko asmatu behar du Absolutua.

* * *

Amaitu aurretik, azken gogoeta bat egin nahi nuke, badaezpadako gogoeta bat. Gaitzusteko kritikariren batek, euren joera estetikoetatik aldentzen diren olerki-lanak nolabaiteko arretaz aztertzeke lana hartzen duten kritikari horietako batek, Queralten lana irakurri eta ez dela originala esango luke, ez dakarkiola ezer berririk poesiari, idatzi duen ia guztia aurretik ere erruz idatzia izan delako, eta, ondorioz, haren lana alferrekoa, ezdeusa litzatekeela. Balizko gaitzespen horien aurrean gogoeta bi. Lehenengoa, beharbada dena dagoeneko esanda eta idatzita dagoela, bai, baina idazlearen eginbeharra ez litzatekeela berriro esatea eta idaztea baino. Borgesek, esate baterako, halabehar hori onartzen zuen, edota Queraltrek gogoko duen Thomas Bernhard idazleak ere bai, zeina hitzez hitz aipatuz: «Funtsean, esaten den guztia aipua baino ez da». Nire iritzia onartzen bazait, ni ez nentorke bat literatur sorkuntzaren horrelako ikusmolde ezkor batekin. Hala ere, mundua esanahi ezezagun berrietara hedatzen duten hizkuntza poetikoaren dimentsio berriek eta haien bilaketak arrisku larria dakarte: komunikatzeko ezintasuna; bereziki, gurea bezalako kultura batean, non sakabanaketa nagusi baita, eta erreferente axiologiko eta linguistiko aski unibokoak behar-beharrezkoak baitira. Bigarren gogoeta lehenengoari estuki lotuta dago. Sarritan ulertzen da «originaltasuna» «zerbait berria sortzearen» adierarekin, baina haren esanahi behinena «jatorrira joatea» da. Publiko «batengana» iristeko arte modernoak duen ezintasuna, neurri handi batean, ondoko gaizkiulertutik dator: artistak objektu artistiko berri bat sortu nahi du, sekula aurretik egin ez den «obra» bat. Baina «originaltasuna», genionez, «jatorrira joatea» da, eta horrek ezinbesteko du *errepikapena*. Heideggerek garbi ikusi zuen, eta aurretik Kierkegaardek, harengandik hartu baitzuen Heideggerek kontzeptu hori. Kierkegaarden arabera, gizakiaren berezko dialektika, norbanako den aldetik, errepikatzeak osatzen du, existentzia iragankorra baita (azken batean, zinezko errepikapena izango litzateke betierekotasuna). Erljio-aldian bizi den gizakia, «fedearen zalduna», hasieratik bukaerara arte bere erlijio-esperientzia etengabe errepikatzen duena da, larritasunetik hasi eta fedearen ziurtasuna erdietsi arte; Mounieren hitzetan, fede-esperientziaren errepikapen kierkegaardiarra «etengabeko konbertsioa» da. Aurreko gogoeta

horiek kontuan hartzen baditugu, Manel Queralt —kontzeptu existentzialista erabiliz— «benetako» poeta da. Haren asmoa ez da aurretik idatzitako poesiaren aldean berritzailea den eredu bat neurtitzez ematea; errealitatea bilatzen du, berea eta guztiena, ikusi egiten du, dramatikotasunez sentitzen du eta, azkenean, modu ulergarri eta zirrargarrian aztertzen eta adierazten du, itzulingururik gabe. Kierkegaarden «fedearen zalduna» bezalaxe, Queralt poeta behin eta berriro itzultzen da, ia obsesiboki, oinazetzen duen Izaki horrengana, eta hitz egiten dio, naiz eta erantzunik ez egon, nahiz eta balizko elkarrizketa hori bakarrizketa izan. Hitz egiten duena aurretik ere esanda egon arren, errepikatzeak beti ekar dezake ikuspegi berri bat (eta beharbada, baita ezkutuan, isilik, gelditu den zerbait ere). Eta *elkarrizketa-bakarrizketa* hori hitzez adierazten denean, ez da hitzotan itxita gelditzen, baizik eta itzuli egiten da berriro, ezarritako harremana gal ez dadin. Munduak, Izateak (geu *izaten* esatea hobeto legoke) ihes egiten digute. Geure baitan ixteko joera dugu: bolizko dorrea; poetaren kasuan, poesiaren kontsolamendua. Horrexegatik da beharrezkoa etengabe kanpora joatea. Bestela Izatea ahanzturan galtzen da, Heideggerrek salatu zuen bezala. Ezinbestekoa da Izatearen esperientzia hori errepikatzea. Ondorioz, beharrezkoa da norberaren burua errepikatzea.

Poeta eta filosofo

Manel Queralten olerkigintza estetikoki kontuan hartu ondoren, ezinbestekoa da bere lanean gehien balioesten duen arloa aztertzea, idaztera zinez bultzatzen duen arloa, alegia: olerkien edukia, adierazi nahi duena; azken finean, munduaren eta bizitzaren bere ikuskera. Gorago idatzi dudan bezala, Queralt poeta-filosofoa da. Baieztapen horrek ez du esan nahi filosofo profesionala edo filosofia-testuen irakurzalea denik, eta gogoeta baten edo irakurraldi batzuen ostean erdietsitako ondorio abstraktuak neurtitzetan ematen dituenik, esate baterako, Schilleren olerki filosofikoen antzera. Existentiaren poesia da Queraltena, baina horrek ez du esan nahi bere olerkiak idatzi aurretik ezinbestean Heideggeren, Jaspersen edota Sartrearen liburuak irentsi dituenik. Hori baino askoz errazagoa da kontua: aipaturiko egileekiko aurki ditzakegun bat etortzeak, batez ere,

bizitzeko eta existentzia ulertzeko antzeko moduaren ondorio dira. Nolanahi ere den, baldin eta noizbait *pathos* existentziala (gizakiaren izate absurdoa eta haren ibili alderrai zentzugabea) kanpotik hartu badu, funtsean (batzuk baino ez aipatzearen) Kafka, Borges, Cioran, Camus edota Kundera bezalako idazleak irakurtzearen ondorioz izan da, zeinek *pathos* horixe berbera arnasten baitute. Ez da batere harrigarria ez eta gaitzesgarria ere: irakurtzen dugun guztiaren artean, beti daude gustukoago ditugun idazleak, haiengan gure ikusmoldeak eta kezkak islatuta ikusten ditugulako. Bat gatoz, beraz, Manel Queralt ukitu existentzialista duen poeta delako ideiarekin; haren poesiak azaltzen duen filosofia, sakonean, *poesia existentzialista* da. Baina, existentzialismoa ez al da, bada, filosofia zaharkitua, gainditua eta *lobby* kulturalak gaitzetsia? Bai, egia da existentzialismoa, filosofia legez, bukatuta dagoela eta gaur egun filosofo batek ere ez duela era horretako diskurtsorik eraikitzen. Baina existentzialismoa *demodé* egoteak ez du esan nahi gizakia existitzen ez denik. Gaur egungo filosofiak gizakia bazterrean utzi badu, eta haren ezinegona, bakardadea eta larritasun itogarria Psikologiari eskaini badio, hura «gaixotzat» hartuz, gertakari hori intelektualen borondatezko utzikieriaz hartu behar da; edota okerragoa dena, botere faktikoen eta haien ideologia inplizituaren ahalegintzat, normaltasunetik aldentzen dena kontsumo-sistematik kanpora baztertzeko eta, horrela, gizakia sistema horretan integratzera bultzatzeko (konduktismoa —edo behaviorismoa— litzateke psikologia-eredurik egokiena: haren oinarrizko tesiak dioenez, pertsona integratua da pertsona mentalki osasuntsua).

Manel Queraltaren poesia gai nagusi biren inguruan ari da biraka: inkomunikazioa eta giza izaera. Queraltaren lanean, gai biok gaur egungo gizakiak bizi duen errealitatea erakusten dute, alde batera utzita haren hizkerak eta egin ditzakeen planteamenduek irakurleari existentzialismoarenak gogoraraz diezazkiokeela. Nire ustez, kointzidentzia hutsa da; besterik gabe, kulturaren testuinguruan estalita datzan adierazpide bat baino ez, zenbait gairi buruz aritzean baztertu ezin dena. Kontua ez da, ez hurrik eman ere, testu poetikoak eraikitzea poeta existentzialistek hirurogeiko hamarkadan egin zuten modura; ez da kontzeptu existentzialen erabilpen hutsal eta sasi «progre» bat egitea. Ildo horretan, aipaturiko garaiotara joz,

Queraltan poesiak gehiago gogorarazten du Vinyolirena ezen ez Gabriel Ferraterrena, azken horrek Queraltengan izan dezakeen eragina gorabehera. Ferraterren lanean beti dago alde poetaren eta hitz egiten duenaren artean, eta Queraltrek ere aldentze hori bilatzen badu, hobeto begiratu eta azaldu ahal izateko egiten du. Hala ere, hura irakurtzean, barru-barruko inplikazioa sentitzen dugu eta horrek balizko objektibotasuna eten egiten du eta irakurlea emozionalki mugiarazten du erreflexiboki baino gehiago. Hunkitu egiten du, baina hunkipenean ito gabe.

* * *

Aipatu dut Manel Queraltan olerkigintzan oinarrizko gai bi daudela: inkomunikazioa eta giza izatea. Badaude gehiago ere, nola ez, batzuk haiei loturikoak eta beste batzuk nolabaiteko autonomia dutenak, bereziki olerki laburreko liburu askotarikoagoetan (*Xiscle*, *Miserere*, *Nicis* eta *Atziacs* liburuetan). Baina gai nagusi biak olerki luzeetan, narratzaile orojakile baten gidaritzapean, garatuko dira «sistematikoki», horrelako hitz bat erabiltzea zilegi bada poesia-testuei buruz hitz egitean. Lehenengo biek, *Ena menys una* eta *Druda* liburuek, inkomunikazioa dute ardatz; aldiz, *Vacu*, *l'èsser sofrent* eta *Ecs*, *perpetuum mobile* liburuek munduan barrena norbanakoaren dinamika subjektiboa «aztertzen dute» (komatxo artean). *Trit* aparteko kontua da. Dena dela, bata bestearen ondorio da: inkomunikazioak norbanako bihurtzen gaitu; atak ixten badizkiogu denok partekatzen dugun hizkuntzari, guztiona (eta, ondorioz, ez bereziki norbanakooa) den hizkuntzari, geure burua derrigortuta ikusten dugu zer garen eta zer egiten dugun hemen aztertzerantz, elkarrizketa bakarrizketa bihurtuz, esan nahi baita, gogoeta.

Hala ere, gai bakoitza aztertzen hasi aurretik, beharrezkoa da, aipaturiko edukien arabera, kontuan hartzea Queraltan poesiaren ezaugarri garrantzitsu bat, zeina, iraganiko garaiekin eta berezko zuten olerki-moduarekin alderatuz, gure garaia ezaugarritzen duen paradoxaren sorburua baita. Queraltan poesian oinarri epiko bat nabaritzen dut, giza ezinegonaren adierazpen hutsa gainditzeko nahia; horrela, gure gizartea zehatz dezakeen diskurtso-eredu bat sortzeko helburuz, zenbait ekinbide erakutsiz eta erreferentziatzat

har daitezkeen ikuskera eta balio batzuk eskainiz. Epikak, gaur egun baztertuta gelditu den genero horrek, garrantzi nazionala edota unibertsala zuten gertaera legendarioak edo historikoak kontatzen zituen eta herri oso baten ezaugarriak eta idealak biltzea eta azaltzea zuen xede. Definizio hori gora-behera, Queraltan olerki luzeen tonu epikoak, nire ustez, salatu egin nahi du, jakinaren gainean edo ez, komunikazioa (guztion bat etortze-modu bat) ahalbidetzen zuten adostasunezko balio haien gabezia. Seguruenik nahi gabe, olerkari-intuizioz, mito batzuk eraikitzen ditu, kontaketa epiko batzuk; baina sakonean ez dira halakoak, zeren agonia, hots, subjektu heroikoaren borroka, existentzia pribatuaren zokoetan galtzen baita. Agonia norbanakoarena da; ez du loturarik herriaren bizitzarekin. Heroia bakarrik dago, antiheroi bat da. Mitoak sortzen ditu, bai, baina antimitoak dira, ez dutelako, mito klasikoen erara, ordena bat eraikitzen; aitzitik, norbanakoaren eta gizartearen desegiterako eta desordenarako joera garbia erakusten dute, bien artean dagoen amildegia dela kausa.

Horra *ironia*. Narratzailea (Homero, Dante edota Milton bezalaxe poeta epikoa dena) urrundu egiten da bere pertsonaiarengandik, funtsean berarengandik. Gertaeren dramatismoa gorabehera, poetak, bere buruarekiko bihozberatasunak eraginda, neurtitzetan umorea iragazten uzten du (sarritan umore beltz eta morbosoan izan arren); eta hain zuzen ere, urruntasunak laguntzen dio bihozberatasun hori sustatzen. Badirudi poetak irakurleari ondokoa esan nahi liokeela: «begiratu, hauxe naiz ni, neure burua kanpotik ikusita; baina nigandik kanpora ez dagoenez azal nazakeen eta justifika nazakeen ezertxo ere, izaera fundazionala duen kontakizun bat idazten ari naiz neure buruaren gainean, behinolako Kontakizun Handien antzera; eta, gainera, horretaz guztiaz trufatu egiten naiz zentzugabekeria handi bat besterik ez delako: norbanako bat sekula ez da giza elkarte bat». Horrela, bada, Vacu, Ecs, Trit eta gainerako guztiak Queralt bera dira; beraien gainean esaten den guztia haien irakurle guztien gainean ere esan liteke; izatez, horixe da poesia lirikoaren betebeharra: denoi jazo ahal zaizkigun bizipenak adieraztea, geure kodeen arabera deszifra ditzakegun bizipenak adieraztea. Baina Queraltrek, olerki horietan, arlo lirikoa epiko bihurtzeak ñabardura garrantzitsuak dakartza: inkomunikazioak olerkariari sortzen dion

isolamendua eta bakardadea; baina poeta ez da mugatzen kexatze hutsera, baizik eta bakardade eta isolamendu horiexek hartu eta bere olerkien formari eransten dizkio.

* * *

Diskurtso postmodernoaren gai tipiko eta topikoa den Kontakizun Handien erorketa bere olerkien ironian islatzen digu Queraltrek, horrela paradoxa agerian utziz; baina erorketa hori gorabehera, harrigarria da haren mundu-ikuskeraren mendebaldeko lehenengo poeta epiko handienarekin bat etortzea: Homerorenarekin, eta, oro har, poesia homerikoaren ondorengo olerkari greziarrenarekin. Queraltaren pertsonaiek halabeharrak gidatuta ekiten eta sufritzen dute, alegia, borondateari gain hartzen dien indar misteriotsu eta adierazezin horrek gidatuta. Ondorioz, ez da harritzekoa haien bizitzen gorabeherak azaldu gabe gelditzea: gauzak diren bezalakoak dira, eta nahikoa da haien kontaketa egitea, edota, gehienez ere, konturatzeko ahalegina eginaraztea, kontsolamendu edo irtenbide bideragarri bat aurki dezagun. *Ena menys una* liburuko panpinek, esate baterako, ezin diete joko-arauei ihes egin, zeinak panpinen halabeharra aurretiaz ezarri duten Moira batzuen agerpen teknologiko nabarmena baitira. Era berean, Vacu ere ez dakigu ez nola ez zergatik iritsi den bere pasabidera: zientziak eta bere azalpen fenomenologiko soilek inoiz ezin izango diote hori argitu. Queraltaren unibertsoak, greziarren unibertsoa bezalaxe, erruduntasunik gabekoak dira: gizabanakoa ez da erabat bere sufrimenduaren erantzule; pairamen hori ez da egin duenaren zigorra (kristautasunean bezalaxe), baizik eta zorigaitzaren ondorioa. Inoiz «erruduntasun» nozioa agertzen bada, funtsean, sentimendu patologiko hori gogoan finkarazten digun gizarte baten oinordeko garelako gertatzen da. Bizitzak eskaintzen dizkigun gaitzen arrazoiak bilatzen ditugu, baina arrazoirik ez dagoenez, asmatu egiten ditugu: gure gaitzak geure baitatik datoz, geu gara haien arduradun; baina, berez, ez dira besterik izateak eskaintzen digun opari bat baino. Ebidentzia hori onartzeak nihilismoaren arriskura garamatza, bizitza ukatzeko arriskura, eta Queraltaren pertsonaiek tentaldi horrexetara bultzatuta ikusten dute euren burua. Baina Queraltrek beti askatzen

ditu, beti askatzen du bere burua. Haren poesian agertzen direnak gizaki arruntak dira, ez onak ez gaiztoak, besterik gabe, mundura part bota ondoren bizitzera kondenaturiko gizakiak, soinean zama tragiko eta aldi berean barregarri hori hartuta bizitzari aurre egitera kondenaturikoak. Beraiek sufritzen dute aska ditzakeen absolutu-nahia, kontzientzia mundutik bananduta dutela. Bakardadeari eta hutsaltasunari atxikita, ez dute euren burua aurkitzen. Jareginda daude inora ez daraman denbora batera, ez bada heriotzara; itzulera errukarria, ez zu, ez ni, ez inor ez dagoen jatorrira. Besteengandik bakartuta bizi gara eta ezin dugu absolutu tantatxo bat ere lortu maitasun komunikatiboaren bidez. Pertsonaia tragikoak, ez onak ez gaiztoak, Aristoteles arabera, tragedietako pertsonaiek izan behar duten bezalakoak.

Vacu, edo Sisifo, Queraltan arabera

Vacu, izaki sufritzailea (2004) liburua da, oraingoz, Manel Queraltan lan poetikoaren gailurra. Hilabete bakarrean idatzia eta *Miserere* liburuaren ondoren ia berehala argitaratua, azken liburu horretan ikuspuntu lirikotik (egunerokotasunaren aurrean ezinegona azaltzen zuen subjektu poetikoaren ikuspuntu lirikotik) lantzen ziren gaiak maila filosofikoa hartzen dute eta, aurretik idatzitako ezein poema luzetan baino nabarmenago, gizakiaren eta munduaren ikuskizun argi eta garbia erakusten dute, batez ere idazlearen sorkuntza-prozesuaren atzean dagoen gizakiarena. Ondorioz, uste dut Queraltan poesia ezagutu nahi duen irakurlearentzat gomendio egokia izan daitekeela idazlan hori abiapuntutzat har dezala, zeren eta Vacuren (protagonistaren) bizi-esperientziaren azalpen argia ez ezik olerkariaren ikuskera existentzialistaren muina ere aurki baitezake, zeina existentzialismoaren mugak gainditzen dituen dialektikaren bidez ebatzita baitago, eta hori gehiago egokitzen zaio gaur egungo gizakiaren bizitzeko zailtasunei, berrogeita hamarreko edo hirurogeiko hamarkadetako gizakienei baino.

Vacu, izaki sufritzailea irakurtzean, ezinbestean Sisiforen mitoari buruz Albert Camusek izen bereko liburuan, eta *Gizaki absurdoa*

saiakera garrantzitsuan eginiko interpretazioa datorkigu gogora. Sisifo, Zeusek zigortuta, harkaitz handi bat malkar baten gainera etengabe bultzatzera kondenatuta zegoen. Gailurrera iritsi bezain laster, harkaitza, bere pisua ezin eutsiz, amildu egiten zen, eta Sisifok berriro hasi behar zuen. Vacu haitz baten barruko pasabide batean bizi da, non ez baitago eskailera kiribil bat baino; haren izatea eskailera horretan gora edo behera egitera, edota geldirik egotera mugatzen da. Dakigunez, Vacuren kartzelatzea ez da errudun izatearen ondorio; hala balitz, beharbada, han barruan *zergatik* dagoen arrazoiren bat aurkituko luke, eta horrek nolabaiteko kontsolamendua ekar liezaioke (bai Camusek bai eta Queraltek ere baztertzen duten ikuskera kristauak jatorrizko bekatuagatik justifikatzen du giza oinazea eta ihesbide bat eskaintzen dio; baina Vacuk «ez du beste mundu batean sinesten», «zoritxarraren lokatzetan» hondoratuta).

Beste pertsonaia mitologiko batzuk ez bezala (esate baterako Ixion edota Tantalo, zeinak Tartarora kondenatuak izan baitziren), Sisiforen mitoa interesatzen zaio Camusi, zigorrak denborazko dimentsioa duelako, eta denborak, ezinbestean, *zentzuari* buruzko galdera dakarrelako berekin. Baina zentzua, norabait iristeko hainbeste ahaleginen arrazoia, ez dagokio munduari, zeina izate hutsera mugatzen baita, gizakiari baizik. «Gizakiaren laguntzadeiaren eta munduaren isiltasun zentzugabearen arteko gatazka horretatik sortzen da absurdoa» (*Sisiforen mitoa*). Gizabanakoa existentzialki kokatzen duen denborazkotasun horren aurrean, Camusek ez du ihesbideetara jotzen Sartrek bezala (erabateko askatasuna zentzu-emaile) edota Jaspersek bezala (transzendentziaren «naufrago-ohola»); gizakiaren duintasuna berorren zentzugabetasuna aitortuz eta onartuz salbatzen da, kemenez baina matxinada-espirtua ukatu gabe (*Gizon menderakaitza*). Vacuren olerkian, Queraltek izatearen denborazkotasuna eta haren zentzugabetasuna onartzen ditu. Hala ere, idazle frantsesak ez bezala, *ez du iruzur egiten*, denborazko prozesua eta horrek berekin dakarren guztia barrutik ikusita baitaude, denboran bertan izatetik. Horrela, bada, honelako pasarteak aurkitzen ditugu:

*Vacuk beti du mina aldamenean,
minaren ondoan dago, eta barruan,
inolako aukerarik gabe kanpotik begiratzekeo
eta ondorioz haren jatorria aurkitzekeo.*

Vacuren oinazearen objektibotasuna (bere izatearen onespenean filosofikoa ahalbidetuko diona) olerkiaren narratzaileak, Queralt berak, ikusten du, baina Vacuk ez. Bukaeran bere oinazeari aurkitzen dion irtenbidea, eskailera-denboran barrena, pasabide-munduan barrena, ibili izanaren emaitza izan da, Vacu ez baita filosofoa (Queralt bai), baizik eta gizaki xume bat olerkariak *muturreko egoeran* ipini duena (cf. Jaspers), gizakiaren funtsezko izatea erakusteko asmoz. Hori ikusita, pentsa liteke Manel Queralt gizaki absurdoaren beste interpretazio bat egitera mugatzen dela, Albert Camusena baino sakonagoa eta egiazkoagoa, berezko mito bat sortuz (Vacu) eta ez beste bat maileguz hartuz (Sisifo). Bai eta ez. Edota bai, baina neurri batean baino ez. Izan ere, Vacuren esperientziak, hau da, haren bizitzak eta haren desirek azaltzen duten *zorigaiztoko kontzientziaren*²¹ dialektika horrek, osagai berri eta erabakigarri bat dakar: *isiltasunaren mehatxua*. Vacuren krisiaren sorrera, berez, ondoko pasartean ikus daiteke: «hautemate baten antzera hasten da» (Hegelen *Espirituaren Fenomenologia*n bezalaxe) «zinez erresumina den» «oinaze berri» hori, bai eta erantzunik ezak «alferrikako» bihurtzen duen «garrasi»aren aukera ere; eta ahapaldiaren bukaeran hauxe dio Queralt:

*baina ez du hitzik jasoko; isiltasuna
baino ez eta erabateko sufrimendu izugarria.*

Camusen gizaki absurdoak hitz egin zezakeen, bere izatea zehaztu eta zehaztasun hori kontzientzia ziurtasun-emaile bilakatu. Vacu, ordea, gero eta gehiago hondoratuko da sufrimenduan eta isiltasunean: munduaren, bere mundu murriztuaren, isiltasunean; nahiz eta mundu horri hitz eginarazi nahi zion, berari buruz mintzatuz, harmailak zenbatuz eta birzenbatuz, ohiturak eta estrategiak sortuz (funtsezkoenari buruz erantzunik eman ezin duen

²¹ Hegelen kontzeptu bat erabiliz.

zientziaren metafora). *Zergatiaren* erantzunik ezak (isiltasuna baino ez den erantzunik ez horrek) Vacuri bere burua zehatz dezakeen hizkuntza galtzearen larritasuna erantsiko dio, eta horren ondorioz, subjektu bezala dagokion nortasunak porrot egingo dio:

nolabait, Vacu bera ere zauri baino ez da.

Eta «hezur-zaku argal» horren barruan oraindik zerbait egotekotan, ahots batzuk izan behar dute, zeinei iturburu zehatzik ezagutzen ez baitzaie eta Vacuri berea ez den oinaze bati buruz mintzo baitzaizkio, baina munduarena den oinazeari buruz. Baina Vacuz kanpoko balizko mundua ere isiltasuna da. Zeren mundua, bere oinazearekin, funsgabea baita. Beraz, Manel Queraltek, *Vacu izaki sufritzaila* poemaren bidez, Camus Wittgensteinen aurka ipintzen du. Poemaren ostean Queraltek aipatzen duen *Tractatus* bukaerako esaera ezagunak argi erakusten du nola ebazten den izatearen esperientzia tragikoa, hots, Vacuk eskaileran barrena egin duen ibilbidea, zeinak filosofo izatera eramán baitu, nahiz eta filosofia exkaxekoa, eta azkenean bakea erdiestera. «Hitz egin ezin denaz, isilik egon behar da» (*Tractatus Logico-philosophicus*),

*errealitate garrantzitsuenei
eta, aldi berean, funtsezkoenei buruz
ez dakigu gauza handirik, ezin da ezer esan.*

Horretaz Wittgensteinek Queraltek bezala pentsatzen zuen; hizkuntzaren mugak zehaztu nahi zituen logikaria zen, dramatikotasun estoikoz eginbeharrari aurre egiten ziona: ohartzen zen barru-barrutik gizakiari dagozkion gaiak, zeinei buruz mintzatzeak balio baitzuen (*Das Mystische*), erdietsezinak direla.

* * *

Esentziaren muina ikustarazteko eta barne-bilakaeren dialektika aztertzeke helburuz, *muturreko egoerara* eramandako gizakia da Vacu.

Olerkariak aurretiaz ezarritako baldintzak dira haren bakardadea eta haren mundu murriztu eta kaxkarra, giza subjektua *ezere* dela erakusteko: bere baitan ez izate, errealitatearen aurrean zabalik egon arren inork begiratzen ez duen leiho. Arreta galarazten eta zer garen ahaztarazten diguten mundurik eta hurkorik gabe, ez dago besterik ni huts-hutsa baino, aitzakiarik onartzen ez duen denbora hutsal batean proiektatuta, zeinaren gutxieneko adierazpena zenbaki-segida bat baita: Vacuri dagokionez, inora ez daraman (eskaileraren bukaerara ez bada) aurreratzea zehazten duen harmaila-zenbaketa. Gizakiak, hipotetikoki, aukera du mementoaren barruan geldirik pausatzeko, egunerokotasuna isil-isilik bizi duen animalia izateko. Ni hipotesi horrekin bat ez banator ere (denboraz eginak baikaude), Queraltrek bere pertsonaiari aukera egiteko ahalmena ematen dio, askatasun osoa. Aske dela, ezinbestean abiapuntura itzularazten duen «arinkeria» bat egiten du: denboraren ukapena eta isiltasuna; landareak bezala bizitzea aukeratzen du Ecs-ek bezalaxe.

Dena dela, poema ixten duen aukerarekin bat etorri ala ez, Vacuren izatea ezaugarritzen duena gizakiaren *de-iekzioa* da, hau da, zergatik ez dakiela munduan part botata egotea:

*gizaki bat genionez, auskalo nola
ilunpeen erdira erori zela.*

Eta *de-iekzioak* (egoera *de-iektoak*, Heideggerek dioen bezala) ezinbestean *pro-iekzioa* eragiten du; hau da, giza izatea denboran kokaturiko *pro-iektutzat* jotzea, zeina zinezkoa bada, *heriotzarentzako-izaki* bilakatuko baita. Eta horixe gertatzen zaio Vacuri, Heidegger irakurri ez badu ere. Existentzia *munduan-izatea* da (*in-der-Welt-sein*); esan nahi baita, mundua ez dela ezer bertan existitzen dena gabe, eta alderantziz: ez dago subjekturik mundurik gabe. Gauzak horrela, hau irakur dezakegu:

*Eskailera Vacu bertan bizi delako existitzen
da eta han bizi den artean existitu egingo da.*

Baina Vacuren mundua zulo bat da. Zer zentzu eman diezaiokegu erabat murrizturiko mundu horri? Ulertzeko, poematik irten behar dugu eta horixe egingo dugu:

*esperantzak beti zulatzen ditu,
estu eta larri baina konfiantzaz,
pasabide sakonak betiereko gauetan.*

Egile berberaren *Nicis* liburuko 2. olerkiaren lerroak dira, lerro adierazgarriak, Vacuren mundua haren esperantzaren ondorio dela erakusten dutelako: funtsean, denbora asmatzera bultzatu duen larritasun jasanezinaren ondorio. Azken finean, subjektua eta objektua termino korrelatiboak dira. Vacuren mundua murrizta da, haren subjektibitatea murrizta delako. Ezin du handik ihes egin:

*irteten bada, (...) eskailera desagertzeko
eta beharbada sekula gehiago ez
ikusteko arrisku latza legoke.*

Kanpotik datozen eta olerkian barrena lelo antzera errepikatzen diren ahotsek

*zorabio burtzoro larritasun eta eldarnio
hil-burren txilioka ari diren haurren ikuskizuna
zorabio burtzoro larritasun eta eldarnio
txilioka ari diren gizon-emakumeen ikuskizuna*

erakusten dutena ez da, berez, pasabidetik kanpora dagoen errealitatea, baizik eta Vacuren mundu-egitasmoak bazterrean uzten dituen errealitatearen arlo batzuk. Mundu izateari utzi gabe, norberaren baitako munduan itxita dagoen *zorigaitoko kontzientziaren* fenomenologia izaki, *Vacu*, *izaki sufritzaileak* agerian uzten ditu oinazea areagotzen dioten bere mugimendu posible guztiak, errepikapenak, eta aurkikuntza berriei esker aurrera joan ahal izateko atzera-egiteak. Gora eta behera zeharkatzen duen eskailera kiribila bezalaxe, olerki espiral hau hasierako isiltasun berberean amaitzen

da. Baina nik, egia esan, ez dut uste Vacuk isilik egoten jarraitzeari eutsi ahal izango dionik.

Daniel Casas Llimós

Filosofian lizentziatua